

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**Miren Agur Meaberen poesia:  
ezaugarriak eta gaiak**

Egilea: Ane Beloki Lopez

Tutorea: Maria Lourdes Otaegi Imaz

Gradua: Euskal Ikasketak

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

2020-2021 ikasturtea

Letren Fakultatea, UPV/EHU

Vitoria – Gasteiz

2021

# AURKIBIDEA

<b>0. Laburpena</b>	<b>1</b>
<b>1. Emakumeen poesia</b>	<b>2</b>
1.1. Emakume poetak historian zehar	2
1.2. Emakume Poeten Topaguneak	3
1.3. Euskal emakume poetak	4
<b>2. Miren Agur Meabe</b>	<b>7</b>
2.1. Ibilbide literarioa	7
2.2. Poesia liburuen harrera kritikoa	8
<b>3. Miren Agur Meaberen poesia: ezaugarriak eta gaiak</b>	<b>11</b>
3.1. Idazlearen autoafirmazioa: Nor naiz ni? Zergatik idatzi?	13
3.2. Gorputzaren hizkeraren transgresioa	16
3.2.1. Azalaren kodea: gorputzaren kodea.	16
3.2.2. Bestelako gorputzek ere hitz egin dezakete	17
3.2.3. Emakume desira eta erotismo femeninoa	19
3.3. Genealogiak	21
3.3.1. Genealogia familiarra	22
3.3.2. Genealogia poetikoa	23
<b>4. Ondorioak</b>	<b>27</b>
<b>5. Bibliografia</b>	<b>29</b>
<b>6. Eranskinak</b>	<b>33</b>

## 0. Laburpena

Literatura deritzogun testu multzoaren baitan, emakumearen errepresentazioa beti izan da estereotipatu eta markatua: ama, maitalea, etxeko andrea, emaztea, aingeru idealizatua, ala bestela, *femme fatale*, gizona galzorira eramango duen emakaitza, gaixoa, histerika, eroa... Gizonen posiziotik irudikaturiko “bestea”.

Virginia Wolfek iradoki zuen moduan, “norbere logela”rik gabeko emakumeek lan handia egin behar izan dute idazle bilakatu eta beren buruaz mintzatzeko: lehendabizi, espazio bat lortu ordura arte gizon ikasiena soilik izan den mundu batean. Jarraian, emakumeen inguruan eraiki diren ideal edo iruditegi negatiboekin hautsi behar izan dute, eta azkenik, eurak benetan errepresentatuko dituen ahots propioa femerino bat eraiki. Literaturaren baitan aitortzea eta errekonozimendua eskuratzea aski zaila gertatzen ari da, ordea, eta gizonen idatziriko literaturaren balorazio irizpideen arabera behar bezalako kalitatearik ba ote duten zalantza ikusten da.

Kritikaren alorrean aitortze hori lortzeko helburuaz, euskal literatura garaikidean Miren Agur Meabe idazlearen ekarpen lirikoaz dihardu Gradu Amaierako Lan honek, obra segida sendoa eskaini duen sortzailea denez, eta harrera kritikoak nahiz sariak eskuratu dioten lekua irabazia duenez euskal sistema literarioan. Izan ere, idazle garaikideen inguruko ikerketa akademikoaren arloan, ez du lekeitiarrak merezi bezalako arretarik, bere adin eta mailako idazle gizonen idazleekin alderaturik.

GrAL honetan, beraz, lehenik emakume poeten historiaz eta iberiar penintsulako poeten ekarpenaz informazio testuingurutzailerak bildu ondoren, euskal emakume poetez arituko gara eta haien artean Miren Agur Meabek hartzen duen lekuaz. Ondoren, gure ikerlanaren corpus gisa, Meaberen poesiaren emaitza diren lau liburuak hautatu ditugu, eta haiei buruz izandako harrera kritikoa bildu ondoren, zenbait ezaugarri liriko nabarmenduko ditugu, darabiltzan gaien artean zenbait gune garrantzitsu landuz. Horiexek osatuko dute gure azterlanaren materia nagusia. Bestalde, erreferente konparatibo gisa, gaztelaniazko emakume poesia garaikidean kideko sumatu diren poeten lanei buruzko ikerketak baliatu ditugu, euskal esparru kritikoan dagoen hutsunearen osagarri.

Azkenik, ikerketa lan horren emaitza nagusiak sintetizatu ditugu ondorioen atalean, egileari buruzko ezagutzan eta balioztapenean ekarpen apala egin nahiz, izan ere, lan honen lehen eragozpen nagusia erreferentzia kritikoen falta izan baita.

## 1. Emakumeen poesia

### 1.1. Emakume poetak historian zehar

Mendebaldeko emakume poetengandik hasi eta emakume poeta garaikideetarainoko ibilbidea jorratzen du Cinta Montagutek *Tomar la palabra* (2015) lanean. Aipagarrienen artean koka daitezke Safo (Xto. A. V) greziar poeta ospatua, Erdi Arokoak (Maria de Ventadorn), emakume poeta humanistak (Gaspara Stampa), Ilustrazio garaikoak (Gertrudis Hore) edota mugimendu erromantikoko emakumezko poetak (Elisabeth Barret Browning).

Poesia garaikidean, euskal emakume poetengan eragin gehien eduki dutenak nazioarteko emakumezko poetak dira, besteak beste, Anna Akhmatova (1889-1966) da aipagarri, Sobiet Batasuneko XX.mendeko poeta nagusienetako bat. Erreferente nagusi da, era berean, Sylvia Plath (1932-1963) poeta estatubatuarra poesia konfesionalaren aintzindari izan zena. Hauekin batera, Adrienne Rich (1929-2012), Audre Lorde (1934-1992), Alfonsina Storni (1892-1938), Alejandra Pizarnik (1936-1972), Sophia de Mello (1919-2004) edo Hélène Cixous (1937) bezalako beste nazioarteko poeta erreferente garrantzitsuak, eta haien lanetan emakume poesiaren erregistro estilo eta tematikak perfilatuz joan ziren. Besteak beste, Cixous poeta frantsesak emakumearen idazketari eta gorputzaren hizkeraren arteko harremanari garrantzia eman zion, hori delakoan emakumeari ebatsi zaion gorputzaren jabe egiteko bide bakarra: “Escribiéndose la mujer volverá a su cuerpo que le ha sido confiscado, que ha sido transformado en extraño, en enfermo. Censurando el cuerpo se censura también la respiración y la palabra” (*La rira de la medusa*, 1995 [1975]).

A. Rich edo H. Cixous-i gertatzen zaien moduan, hots, poeta izanik ere teorialari feminista gisa ezagunagoak izatea, antzekoa da Patti Smith iparramerikarraren kasua ere, abeslari izateagatik ezagunagoa den arren, poesia lan ugari egin du gaztetatik. Eredu feminista izan da bere ibilbideagatik eta hori zenbait euskal poetengan islatu da,

besteak beste, Meaberengan, zeinak aztergai izango dugun “Patty Smith Rimbaudekin ametsetan” poema eskaini zion (*Bitsa eskuetan*, 24-25).

## *1.2. Emakume Poeten Topaguneak*

70eko hamarkadatik hasi eta gaur egun arte, emakumeek idatziriko poesiak gorantz egin du etengabe. Hazkunde hori frankismo osteko demokraziak eta konstituzioak ahalbidetu zuen hein batean, emakumeari espresiorako askatasun bat eman baitzitzaion bizitza publikoan, gizonezkoekin batera (Rosal, 2011: 158). Hala ere, emakumezkoen poesiak ez du gizonezkoenak izan duen harrerarik ez eta erraztasunik izan inondik ere. Antologietan lekurik izan ez duten bezala, jaso dituzten kritikak ez dira onak izan, emakume poeten lanak izate hutsagatik, noski. Maiz, misoginia, zapalkuntza eta bazterkeria ere gailendu dira emakumeen gainean. Halere, emakume poesiaz ikertu duen Maria Angeles Hermosillak (2011) XX. mendeko emakume espainiar poetei dagokienez, aipagarraien artean kokatzen ditu Olvido Garcia Valdes (1950), Ana Rossetti (1950) eta Blanca Andreu (1959) eta haien lanak antologietan bilduta agertzen dira.

Emakumeen poesiari egin zaizkion kritika literarioetan, oso gutxitan egin dira testuari buruzko kritika baloratiboak, izan ere, ideologikoki eta fisikoki kritikatuak edo epaituak izan dira gehienetan. Kritika negatibo horien ondorioz, emakumeak ahaldunduta irten dira eta jarrera aldarrikagarriak hartu dituzte. Honek euren diskurtso antologiko eta kritikoak indartzea eragin du. Emakumeen presentzia eskasa bazen, antologoek ere ez zuten batere lagundu antologietarako hautaketekin, erabat baztertuta utzi baitzituzten emakumezko gehienak (Rosal, 2011: 160).

Adituen iritziz, emakumeen poesiaren presentziaren goradakaren erantzuleak Emakume Poeten Topaguneak izan dira. Topagune hauen ondoren eman zen emakumeen presentzia kritiko eta instituzionalaren gehikuntza. Emakume Poeten Topaguneak 1996tik 2002ra bitartean ospatu ziren urtero Espainiako zenbait hiritan, eta hiru urteko baraualdiaren ostean, 2005. urtean beste elkarretaratze bat egin zuten. Zortzi izan ziren orotara eta Espainia osoan zehar lekualdatzen ibili ziren: Vigo (1996), Kordoba (1997), Lanzarote (1998), Malaga (1999), Bartzelona (2000), Donostia (2001), Granada (2002) eta Gasteiz (2005). Emakume poeta euskaldunek ere parte hartu zuten

egonaldi hauetan, besteak beste Tere Irastortzak, Aurelia Arkotxak, Miren Agur Meabek, bai eta gazteleraz idazten duten Luisa Etxenikek, Eli Tolaretxipik eta Julia Otxoak.

Bi zehar-lerro nagusiren baitan eraikitzen ziren emakumezko poeten egonaldiak (Rosal, 2011: 162): politika eta estetika. Hala, subjektu poetikoaren eraikuntzaz, kanonaren berrikusketaz, diskurtsoez eta globalizazio kulturalaz jarduteko aukera izan zuten eta bide batez, euren bizipenak kontatu eta elkarbanatzekoa. Era berean, ez zituzten aipatu gabe utzi emakumeak sorkuntza poetikoan izan duen papera, generoagatik isilaraziak izana eta testuen harrera eskasa. Rosalek (2011: 162) 80.ko hamarkadatik aurrera emakume idazleek izan zuren gorakada azpimarratzen du eta BOOM gisa izendatu. Hau noski, topaketen ospakuntzan islatu zen eta honek eman zion euskal emakume poeten mugimenduari ere bultzadarik handiena.

### *1.3. Euskal emakume poetak*

Euskal emakume poetak gutxi dira eta ez dira behar bezain ezagunak eta aztertuak. Lehen bezala orain. Iraganean gutxi baziren ere, izan baziren euskal emakume poetak, baina ez zitzairen lekurik egiten historietan edota isilaraziak izaten ziren. Bazterketa horren arrazoiak argitzeko, Alvarez Uriak eginiko emakume idazleei buruzko artikuluan Nina Bayme iparramerikarraren iritzia dakar bere lerroetara. Haren iritziz, emakumeak hiru arrazoigatik izan dira isilaraziak: aurreiritziengatik, irizpide artistikoengatik eta literatur bikaintasuna maskulinoa delako (Alvarez Uria, 2005: 37). Alvarezk Mari Jose Olaziregiren hitz batzuk ere badakartza bere lanera, eta honek dio (2003: 203) emakumeak ez direla existitu euskal literaturaren historian, beti egon izan direla periferian. Horrez gain, haien lanen inguruko ikerketa lan asko egiteke daude, ez baita inor arduratu hortaz, eta gainera, historiagileek ez diote behar bezalako ekarpena egin euskal literaturari, emakumeak ez baitira kontuan hartu. Euskal literatura, hortaz, gizonezko idazleei begira eraiki da (Alvarez Uria, 2005: 38).

Euskal emakumezko poetak beranduago sortu baziren ere, XV. mendekoak dira emakume poeten lehen agerpenak, eresi-egileenak hain zuzen ere: Milia Lasturkoaren ahizpa, Alosko Usoa, Ozaetako Santxa, Oroko Peru Gartziaren ahizpa... Ahozkotasanaren esparruan sortzen zuten literatura, eta hiletetan eresiak kantatzea zen

euren zeregina, baita plaza eta merkatuetan *profazadore* aritzea ere. Halere, Bizkaiko foruak jaso duenez, debekatu egin zitzaizkien, gatazka sortzaile zirela argudiatuz (Kaltzakorta-Etxeberria, 2009: 46).

Xabier Altzibarrek (2008) aztertutako Bizenta Mogelek idatzirikoa *Gabon-kantak* eta bertsoak dira aipagarri XIX. mendearen hasieran. Altzibarrek frogatzen duenez, Bizentaren *Gabon-kantak* euskal literaturako obra garrantzitsua da eta behar bezala ezagutzen ez dena. Bizenta (1882-1854) euskal literaturako lehen emakume bertso idatziaren egilea da haiek aztertu eta argitaratu zituen Altzibarren iritziz. *Gabon-kantak* dira Bizentaren lan pertsonal eta originalena, eta bertsoen edukia (gaiak, asmoa, tonua), eta haietan dagoen bilakaera eta forma (hizkuntza, metrika) aztertu ditu xeheki.

Euskal emakume poeten ekarpen ugariagoren berri izateko XX. mendera arte itxaron beharko dugu. Badakigu gerra hasi aurretik zenbait emakume poeta izan zirela olerkarien mugimenduaren garaikide. Hauetako batzuk, hala nola Sorne Unzuetak “Utarsus”, Emakume Abertzaleen Batzako kide ziren, eta EAJ-ren ideologia zabaltzea zuten helburu (Alvarez Uria, 2005: 51), baina beste askok tematika libreagoa erabili zuten, eta euren kezkei buruz idatzi zuten: Errose Bustintza, Balendiñe Albisu, Rosario Artola eta Maria Etxabek besteak beste. Haien lanaren ezaugarrien inguruko lehen hausnarketa kritiko bateratua Jon Kortazarrek (1995) eskaini zuen “Modernitatearen agerpena. Emakume olerkariak: Onintze, Utarsus” izeneko atalean. Bertan Frantziska Astibia “Onintze” poetaren estilo modernista eta bizitzaren existentziari buruzko galdaketaren gaia eman zituen ezagutzera. Geroztik ordea, Elixabete Perez Gazteluk (2017) egilearen bizitzaz, militantzia politikoaz eta lan literarioaz askoz berri zehatzagoa bildu du, eta besteak beste, jasotzen du Errose Bustintza “Mañariko”z Xabier Kaltzakortak baieztatu zuen bezalaxe, Onintze “Lauaxetak berak jarraiki ildotik hurranen hurran abiarazten zuen” poeta izan zela (Bidador, 1996). Idazle multzo interesgarria bildu bazen ere, tamalez, ez zuten poesia libururik argitaratu sasoi hartan eta aipagarri ditugun belaunaldi hartako emakume idazleen lanak bizi osoko lanen fruitu dira, hala nola Sorne Unzueta (1997) edo Baliendine Albizurena (1984).

XX. mende amaieran, Euskal Herrira ere emakume poesiaren gorakada etorri zen. Ezagunena Amaia Lasa genuke, 1971ean *Poema bilduma* liburua bere anaia

Mikelekin batera plazaratua. Emakumearen ahots garaikide apurtzailea ekarri du euskal literaturara, eta ez da kasualitatea “a e i o u berri bat” sortu nahi izatea, bere poema batean dioen gisan. Izan ere, tradiziodun emakume poeten faltan, lehen ahotsa izango da Lasa. Poema horretan, hizkuntza berri baten beharra aldarrikatzen du. Gisa berean da aipagarri Arantxa Urretabizkaiaren poesia ere, eta biak izango dira nolabait aztergai dugun Miren Agur Meaberen aitzindariak.

XX. mende amaierako poeten artean Meaberen belaunaldikotzat jo genitzake Aurelia Arkotxa, Itxaro Borda edota Tere Irastortzaren ekarpen poetikoak; halere, Meabek haiekin partekatzen dituen alderdiak eta ezberdintasunak aztergaitzat hartuko dituen lan kritikoa garatzeke dago, tamalez. Gure lan honen asmoa ildo horretan urrats bat eman eta Meaberen lan poetikora hurbiltze kritiko monografikoa egitea da, geroagoko ikerketa konparatuei oinarria eskeintzeko helburuz. Gisa berean, nabarmena da emakume idazle eta bereziki poeten kopuruaren igoerak estilo eta molde askotariko idazleak ekarri dituela: Sonia Gonzalez, Pili Kaltzada, Goizalde Landabaso, Ixiar Rozas, Castillo Suarez, Aitziber Etxeberria, Karmele Jaio, Leire Bilbao...

Bestalde, emakume idazleen inguruko hausnarketaren esparruan bereziki adierazgarriak izan dira zenbait proiektu: batetik, Ana Urkizaren *Zortzi unibertso. Zortzi idazle* (2006), Mariasun Landa Etxebeste. Aurélie Arcocha Scarcia, Yolanda Arrieta, Miren Lourdes Oñederra, Itxaro Borda, Miren Agur Meabe, Arantxa Urretabizkaia, eta Laura Mintegiren partaidetzaz; eta, bestetik, Eider Rodriguezen *Idazleen gorputzak* (2017) lana Arantxa Urretabizkaia, Laura Mintegi Lakarra, Miren Agur Meabe, Karmele Jaio eta Uxue Alberdiren partaidetzaz. Emakume idazleen lanez eta egoerari buruzko hausnarketa kritikoa bildu duten ikerlanak dira biak, egileen testigantzak jasoz, eta Jule Goikoetxearen hitzurrean azken hamarkadetan euskal emakume idazleen garapenari buruzko hausnarketa eginez, hain zuzen ere, euskaraz sortutako lehen liburu bilduma feministaren altzoan garatua: Lisipe. Proiektuaren aurkezpenean Jule Goikoetxeak (2016) aipatu zuenez, “beharra zegoen eta masa kritikoa ere badago orain horrelako proiektu bati hasiera emateko”. Erronkei dagokienez, “erronka politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak asetzeko pentsamendu liburua da”. Proiektu kolektibo bat da eta “patriarkalak ez diren tresna analitikoak sortzea” dute xede.



Gradu Amaierako Lan hau gauzatzeko euskal emakume poetei buruzko erreferentzia kritikoak topatzea zaila izan da, besteak beste, ez direlako modu kritikoan sakon aztertuak izan. Hori dela eta, Espainiako emakume poetekin alderatzeko bidea hartu dugu, alegia, Meabe bere adinkide diren emakume poeten inguruko hausnarketa kritikoan oinarriturik. Aipaturiko ikerlan horietan, emakume idazleen ezaugarriak orokorrean sintetizatu direnean zenbait alderdi azpimarratu izan da. Horien artean, lehen, emakume ahots propioa edota erregistro propioa garatzeko ahalegina, ukatua zaion *egiletasuna* aldarrikatzearekin batean. Bigarrenik, gorputzaren kontzientziarekin batera, estereotipo finkatuen zama eta sexualitate femeninoaren aldarrikapena nabarmendu da, desira objektu izatetik desira subjektu izatera egindako urratsa. Azkenik, hirugarren multzo batean daude emakume genealogia sozial, familiar edota poetikoa eraikitzen bideratuko hausnarketak.

Arlo kritikoan nabarmendutako hiru interesgune horiei lotuko gatzaizkie azterlan honetan zehar, eta Miren Agur Meaberen poesia hobeki ezagutzeko bere liburuetan hautaturiko zenbait poema adibidetzat hartuko ditugu. Horretarako, lehenik, bere idazle nortasuna eta idazlanak aztertuko dira, haien duten harrera kritikoaren berri emanez, geure azterlanaren abiapuntu gisa.

## **2. Miren Agur Meabe**

### *2.1. Ibilbide literarioa*

Miren Agur Meabe (Lekeitio, 1962) poetak Magisteritza eta Euskal Filologia ikasketak egin zituen, eta irakaskuntzan nahiz testuliburugintzan aritu da, bai eta Giltza – Edebé argitaletxeko zuzendaritzan 1992tik aurrera, nahiz eta badiren urteak horretan ez diharduela. Euskaltzain urgazlea da 2006az geroztik eta tarteka itzulpenak ere egiten ditu. Heldu, gazte zein haur literatura idatzi badu ere, haur eta gazte literaturan eta bereziki poesian nabarmendu da. Bere lehen lana ipuingintzan egin zuen, *Uneka...Gaba* ipuin-liburuarekin 1986. urtean. Ondoren, poesiarako jauzia eman zuen eta horretarako lagungarri izan zitzaion Lasarte-Oriako Udalaren saria irabazi izana 1991. urtean, *Oi, hondarrezko emakaitz! Garraitzetako itsas urak aitortutako poemak* liburuarekin. Haur eta gazte literaturari dagokionez, zenbait lan egin ditu, besteak beste, *Bisita* (2001), *Itsaslabarreko etxea* (2001) *Etxe bitan bizi naiz eta zer?* (2003), *Urtebete itsasargian*

(2006), *Zer da ba, maitasuna?* (2008), *Errepidea* (2011)... Narrazioei dagokienez, *Kristalezko begi bat* (2013) eta *Hezurren erretura* (2019) argitaratu ditu, eta aztergai dugun generoan *Azalaren kodea* (2000), *Bitsa eskuetan* (2010) eta *Nola sartu errautsa kolkoan* (2020) liburuak argitaratu ditu, helduei zuzendurik.

Miren Agur Meabek sari ugari jaso ditu urte hauetan zehar. Garrantzitsuenak aipatzearen, hiru aldiz eman diote Euskadi Saria; 2001. urtean, *Itsaslabarreko etxea* lanarekin, 2003an, *Urtebete itsasargian*-ekin eta azkena, 2011n *Errepidea* lanarekin. Horrez gain, birritan irabazi du Espainiako Kritika Saria, kasu honetan poema liburuekin: *Azalaren kodea* (2001) eta *Bitsa eskuetan* (2011). Bestalde, ohorezko sariak ere jaso ditu Miren Agur Meabek, esaterako, Lauaxeta Saria 2007. urtean eta Rosalia de Castro saria, 2012an. Azkena, 2020an jaso zuen *Itsasoaren atea* lanarekin, eta Haur literaturako Mikel Zarate saria jaso zuen.

Meaberen esperientzia pertsonalean marka sakona utzi zion gaztetan begi bat galdu izanak eta bere idazlanetako batean, *Kristalezko begi bat* (2013), hausnarketa intimoa eskaini zigun galera hari buruz. Begiko gaitz honek eragin zuzena izango du idazlearen lanetan, eta metaforikoki eta beste zentzu batzuetan ere baliatuko du autoreak eta gorputza sartuko da literaturaren joko-zelaian erregistro tonu ezberdinen kontrastearen bidez.

## 2.2. Poesia liburuen harrera kritikoa

*Oi, hondarrezko emakaitz!* Miren Agur Meaberen lehendabiziko poema liburua da. Lasarte-Oriako Udalaren Saria irabazi zuen lan honekin 1991. urtean eta gerora *Idatz & Mintz* Labayru ikastegiko aldizkariak argitaratu zuen 1999an. Liburu honetako poema batzuk Meaberen obrarik ezagunena den *Azalaren kodean* (2000) aurki daitezke. Lan honek rezeptzio kritikorik eta berrargitalpenik izan ez badu ere, bere ibilbidean garrantzitsua den lan bat dela iruditzen zaigu eta horren zergatia poemaren azterketaren bidez azalduko dugu.

*Azalaren kodeari* (2000) dagokionez, Juan Luis Zabalak (Sautrela, 2016) azaldu zuen, gorputza poesiaren zentralitatera ekarri duen lan bat dela. Halaxe da, Meaberen bigarren liburuak lirismoa, erotismoa eta sentsualitatea uztartzen ditu. Gisa berean

denboraren inguruko gogoeta egiten du *Azalaren kodean*, Zabalaren iritziz (2016). Azalean itsatsi nahi da bizitakoaren oroitzapena, bai baitaki denbora oso arin doala; izan ere, azala da komunikazio sentsorialaren giza organoa. Azalaren kodea deskodetu nahi du Meabek, eta behin eta berriz jotzen du ez-hitzezko gainerako kode komunikatiboetara. Egunerokotasunaren inguruko erreferentziak dira nagusi bere poesian; balorazio ikuspegi batetik, ez ironiatik. Estiloa indartsua eta zuzena da, hunkigarria eta aberatsa, eta konszientea, solidarioa eta bihurria, aldi berean. Idazlan hori gazteleraz, katalanez, eta zatika ingelesez ere itzulia dago, eta zenbait edizio ezberdin ere argitaratu dira.

Iratxe Retolazak (2009) dioenez, emakumearen gorputzaren inguruan sorturiko diskurtso sozialak eta pertsonalak gurutzatu ditu bere poemetan, gorputzaren (azalaren) kode berriak aurkitu nahian. Honela azaltzen du:

Poesiaren protagonista lehenengo pertsonan mintzo den emakumezko nia dugu. Protagonista hau hizkuntzaren morrontzatik askatu nahian dabil. Baiki, morrontza honek besteekin izandako harremanak zeharo baldintzatzen baititu, komunikazioaren ezintasunera eramanez. Are gehiago, hizkuntzarekiko morrontzak oroimenera garamatza, oroitzapenen zartadak ezin sahiestuz. Horregatik, beharrezkoa dakusa menpekotasun horretatik askatuko gaituen beste zeinu sistema baten beharra, beste komunikazio sistema baten beharra: azalaren aldeko aukera egingo du. Eta sentimendu eta kezken kanporatze horretan norberaren larrutzea baino, barrukoa kanporatzeko azalaren gardentasunaren, naturaltasunaren alde egingo du: gorputza kode berriz larrutzatzeko beharraz jardungo du.

Erotika ere maiz aipatu du kritikak liburu honetan indar handia duen gaitzat. Esate baterako, “Memoria ez galtzeko oharrak-3” izeneko poeman auto bateko sexu-harreman bat irudikatzen delarik. Bestalde, Gutierrez Retolazak (2001) lotura bat ikusten du Meaberen “Marmoka” poema eta Hélène Cixousen *Le rire de la Méduse*-ren artean: “Emakumeek beren gorputza eta beren idazketa berreskuratzerantz bultzatzen ditu. Bere aburuz, emakume idazketa berri bat bilatzea beharrezkoa zen. Idazketa berri hori inkontzientearen eta libidoaren adierazle izan behar zuela azpimarratu zuen”.

Lau ataletan banatuko da barne-bidaia hori: “Oharrak”, “Orbainak”, “Tatuajeak” eta, “Kontrazeinuak”. Felipe Juaristik (2001) adierazi zuenez, liburu honetako “Kodea” poemak laburbiltzen du ondoen liburu osoa: “Izan ere zein da hitzarena ez bezalako kodea, hizkera ez hitzezkoa, oroimenean kondenatu ezinekoa, adierazi gura ez denaren

adierazpidea? Azalaren kodea, noski, azalaren mintzoa, gorputzarena alegia.” Hemen argi isla daiteke aurrez hainbatetan aipatutako emakumeen ahots propio berri baten beharra. Kasu honetan, Meabek gorputza baliatzen du horretarako.

Laburtuz esan daiteke, liburuak nolabaiteko batasun bat duela emakumezkoaren gorputza erdigunean jarriz. Ordura arte azaldu gabeko kode baten aldarrikapena da liburu hau, alegia, gorputzarena, maiz, hitzek baino gehiago adieraziz.

*Bitsa eskuetan* Miren Agur Meaberen hirugarren poema liburua da. Izenburutik bertatik, biluzte bat dagoela aipatzen du Juan Ramon Makuso kritikariak (2010). Benetakotasunetik idatzitako poesia liburua dela dio Javier Rojok (2010), hainbeste, non kosta egiten den pertsona subjektu poetikotik bereizten. Azken honek, esperientziatik idatzitako liburu bat dela dio, bizitza ezagutzen duen norbaitek idatzia, alegia. Horren adibide dira poemetan aipagai diren gaiak: maitasuna, heriotza, sexua, bakardadea... Egiturari dagokionez, hiru ataletan banatzen da, eta gisa hontara deskribatzen du Leire Lopezek (2011) bere kritikan:

Hiru ataletan banatuta dago liburua: *La vie en rose*, *Harearen geriza* eta *Zapitxo intimoak*. Lehenengoan, bidegurutzean dagoen emakumea ageri zaigu, orain arteko bizitzaren eta hemendik aurrerakoaren artean, bizitzaz hausnartzen duena, batzuetan ilun —*Gaza grisa*—, beste batzuetan gozamenek —*Locus amoenus*—. Bigarren atalak arnasa ematen dio liburuari, gaia bera arnasa ematetik baino arnasa kentzetik hurbilago badago ere. Hiru ataletan desberdinena da, eta liburu homogeneousia egiteko arriskuarekin apurtzen du. Ni lirikoak amaren gaixotasunaz eta heriotzaz egiten du gogoeta, eta heriotzaren osteko doluaz. Azken atalean, sentsualitateak eta harremanek dute leku gehien, lehen ataleko bidegurutzearen ostean, ni lirikoak bizitza berria probatzen ibiliko balitz bezala. (*Berria*, 2011)

Igor Estankonak (2010) berriz, edertasunari egindako kantua dela diosku, “uteroan pilatzen diren disgustu guztien kontrako aringarria. *Bitsa eskuetan* da pertsona hobea izateko gogoeta eta onarpen malenkoniatsu bat bizitzarena” (*Deia*, 2010). Zahartzen ari den emakume baten testugantza da liburu hau, eta hortaz denboraren joanari buruzko hausnarketa ere bai. Gai unibertsalez jarduteaz gain, gai intimoez ere badihardu, maitasunaz eta heriotzaz besteak beste, amaren heriotzaz. Gema Lasartek honakoa dio (*Argia*, 2011): “Nitasunetik idazten digu egileak, ahots propioa ez ezik, identitate eraikuntzarako ispilu anitz jarri dizkio haren bizi esperientziei”.

*Nola gorde errautsa kolkoan* poesia liburuak 2010eko hamarkadako bi narrazio libururekin dituen harremanak estuak dira, *Kristalezko begi bat* (2013) eta *Hezurren erretura* (2019) izenburuekin. Lehenengoa nobelaren generoan egin zuen, bigarrena ipuinetan. Eskola egunetako oroitzapenak daude, palmondoa, iratzartze sexuala, kristalezko begia, ama, zahartzarorako bidea, maite-lagunaren galera, katua, abandonua... Ibilbidea memoriaren kutxan abiatzen da, album batean. Gero eramango gaitu genealogia femeninoetara (fikziozkoak zein hezur haragizkoak diren emakumeengana hurbilduz), errealitatearen bidaiaren alegoriara, indarkeria, zapalkuntza, eta horien gaineko arduraren pertsonaletara gero... dolua eta heriotza datoz ondoren eta amaitzeko literaturaren gaineko poesia jasotzen du. Egileak bere liburuaren aurkezpenean adierazi zituen hitzak baliatuz esan daiteke Meabek *Kristalezko begi bat* liburuan eginiko sasi garbiketa intimoaren ondoren heldu zela *Hezurren erretura* (2019) edo suaren bidezko purifikazioa. Oraingoan aldiz, erreondoko kondar edo errautsen inguruko hausnarketa heldu zaigu:

Zerbait egin beharra dago su metak utzitako errautsekin. Maila praktikoan lurra ongarrizteko da, baina maila metaforikoan sormena elikatze baliatu ditut. Ondorioz sortu da liburu hau. Lehenago izan bazena eta orain ez dena, edo beste zerbait dena onartzeko ariketa bat da. [...] Urteen joanak eta esperientziak sendotu egiten dituzte onarpenaren oinarriak. Horregatik, “nola gorde errautsak kolkoan” esatea edo “bitzita kudeatu” esatea gauza bera da. (Larretxea, 2020)

### **3. Miren Agur Meaberen poesia: ezaugarriak eta gaiak**

Miren Agur Meaberen poesiagintzaren ardatz formalak definitzea ez da erraza. Aniztasun formal handia erakutsi du bere liburuetan zehar, oharrak bezain laburrak dira batzuk, hausnarketa solteak; beste poema batzuk postalak dira, oroigarri moduan igorritako hausnarketa arinak. Prosan idatziak daude batzuk, eta beste batzuek koplak edota haikuak bezalako espresio laburra eskaintzen dute, apenas oharmen estetiko baten islapena... Izan ere, Miren Agur Meabek etengabeko hausnarketa eskaini digu poesia egiteari buruz, lehen liburuko “Arkitektura”tik hasita, azken liburuko poesiari buruzko poemetaraino. Edonola ere, ez du agian 2010eko *Bitsa eskuetan* liburuako “Geranioaren minipoetika” (41) izenekoan bezain modu zuzenean adierazi bere indargune diren ezaugarrien multzoaren berri:

Mezuei gantza kentzen dihardut labanaz,  
Alfer-kinkallatik libratu nahiz ahotsa.

Badut erritmoaren sena, xehetasunekiko joera,  
Irudietarako gustua, emozioaz gogoetatzeko xedea.(2010: 41)

Aho batez aitortzen zaizkio Meaberi elaborazio poetiko handiz moldaturiko liburuaren egile dela, multzo egituratu eta landuz osatua gehienetan. Bestalde, poesiaren esparruan baliabide estilistiko aipagarritzat jotzen den erritmoaren sena, teoriarari askorentzat poesiaren beraren muina dena, Meaberen testuen ezaugarri nabaria da, testuaren egituaketa morfosintaktiko landuaren fruitu den kadentzia izanik bere obsesioetako bat. Adibidez, “Salmoa” izenekoan, paratestu nagusiak iradokitzen duen genero biblikoaren oihartzunaz baliatzen da maitasun estasi batez amaitzeko:

aintza eta bakea lurrean

kale-kantoia jiratu eta batera

txori bat pausatu baitzait sorbalda gloria

zure musu bat sorbalda biluzian egunsentian

hain handi eta eder eta on baitzaitut

ardagaia eta su-lama

gloria zu/ bedeinkatua zu/ eskerrak zuri/ ahuspez agur/

oi neure erraldoi/ oi neure masai/ oi neure irlako moai (2010: 39-40)

Poema honetan nabarmena den erritmoarekin, eta irudien fintasunarekin batean, ezin ahantzi genezake bestalde, alusio kulturalen erabilera trebea, kasu honetan eliz kantuetako aintza edo gloriaren estiloaz salmoari keinu eginez. Ildo berean aipagarri da, *Bitsa eskuetan* liburuko “Mamuaren eskea” (76) izeneko poema, non “Hau maitasun hau” esapideaz hasi eta amaitzen diren hiru pasarte oso moldatu dituen, letania baten gisan luzatuz: “alfombra lako maitasuna, itsulapikoa eta isuna, maitasun beldurgarria, maitasun gozagarria, etorri datorren maitasun, joan badoan maitasun hau”.

Aipatu beharrekoa gisa berean, “Hobia” izeneko poeman, amaren bizitza eta heriotza lehen pertsonan kontaturiko poeman suma dezakegun intertestualitatea Milia Lasturkoaren eresiarekin:

Garbi izan nituen nire zutarriak:

etxeokak jagotea, aurreko eta osteko;  
legeak betetzea, zeruko nahiz lurreko;  
obligazioa jartzea debozioa orduko.  
Belar-egoskiek laguntzen zidaten loak hartzen;  
geroago pilulak behar izan nituen.  
Zein ote da andre jasekoaren saria?  
Esku zabaletan urre gorria:  
bitsa eskuetan eta bits horren zauriak.

Orain ilunpean nago. Eskeleto bat naiz,... (2010: 56)

Miren Agur Meaberen erregistro lirikoaren ezaugarri formalak, sinbolikoak eta intertestualak sakon aztertzeak badu interesik, dudarik gabe, horrek egiten baitu bere sorlana bakana eta guztiz berezia. Halere, lan honetan emakume poesia garaikidearekin partekatzen dituen ezaugarri tematikoei eustea hartu dugu helburutzat. Horregatik, hiru gai ardatzei lotuko gatzazkie Miren Agur Meaberen poesia azterketa burutzeko bere liburuetan hautaturiko zenbait poema adibidetzat hartuz: egiletasunaren reafirmazioa, idazle izaera beraren inguruko hausnarketa eta ahots propioaren bilaketa. Bigarrenik, gorputzaren kontzientzia eta hausnarketak eragiten dituen kontraesanak. Azkenik, hirugarren multzo batean jorratuko dira emakume genealogia, familiar edota poetikoa eraikitza bideratuko hausnarketak.

### *3.1. Idazlearen autoafirmazioa: Nor naiz ni? Zergatik idatzi?*

Miren Agur Meaberen testuen artean ahots propioaren eta identitate femeninoaren bilaketari dagokionez, bere lehen liburua da aipagarriena. Bertan emakume poeta izatea zer den, nola bizi duen eta idazketak nolako garrantzia duen erakusten du. Lehen poesia liburua izanik, lehen agertze eta plazaratze bat ematen da, eta poetak bere burua definitu beharra sentituko du. “Nor naiz ni?” galdera izango du oinarri eta etengabeko identitate bilaketa bati hasiera ematen zaio. Mendeetan idazketa gizonezkoen esparru izanik, emakumezkoen agerpenak molde, ikuspegi eta gai berriak dakartza berarekin. Erregistro deklaratihoa da gehien erabiltzen dena, eta horretarako gutun eta eguneroko formatua erabiltzen dute askok eta askok. Idazketa pertsonalak dira nagusi, intimoak, eta hori euren burua berraurkitzen aritzeari eta euren idazteko eskubidea zalantzan jartzeari zor zaio. Hala, autoafirmazioaren erakusle da Meaberen lehen poema liburua den *Oi, hondarrezko emakaitz!*:

Zergatik idatzi?  
Nire esaldiak,  
nire bihotzera zuzenduriko gaizkapen-iskiluak izanik,  
errukizko gezirik gorenenak direlako;  
nire berbak,  
nire baitaren betazal lotsatia zorairaino jasotzen  
[duten atzamar gozoak izanik,  
barren-barreneko ozeanorik hertsienara joan eta  
[etortzeko  
salbokonduktorik legezkoenak direlako. (1999: 30)

Hizkuntzaren ezintasun bat erakusten du poema honetan. Esan gisan, poema intimista da, propioa eta pertsonala, bere poesia pertsonalaz baitihardu. Ikus daiteke idazteak bere burua aurkitzen edo eraikitzen laguntzen diola “barren-barreneko ozeanorik hertsienara joan eta etortzeko salbokonduktorik legezkoenak” direla dioenean. Gisa berean, nabaria da oso poema pertsonala dela eta asko ematen diola idazteak. 2018an Miren Agur Meaberi eta Itxaro Bordari egin zitzaaien elkarrizketa batean, Meabek esaten zuen berarentzat “idaztea dela munduan egoteko modu bat eta nire bizitza intentsitate handiagorekin bizitzeko baliabide bat. Idazteak laguntzen dit ni izaten eta ni aldatzen”. Jarraian, esaldi eder batekin borobiltzen du idazketak berarentzat duen pisua “nire izatearen parte da idaztea, eta ni neu naiz idaztearen parte”.

Beste olerki batean ere, bere poesia definitzen du arkitekturarekin alderatuz, zehazki klaustro batekin. Bere sorkuntza zein den erakusten du, arkitekturari eta idazketari etengabeko erreferentziak eginez:

Nire olerkia da nik neuk eraikitako klaustroa.  
Aurrenik, liluraren zizelari eta ekinaren mailuari  
[herdoila garbitu.  
[...]  
nire olerkia da nire barrendegia,  
non harro iraun lezakeen nire berbazko hesiak.(1999: 31)

Metaliteratura baliatuz, bere sorkuntza-lana nolakoa den deskribatzen du. hain berea duen irudi hizkeraren bidez. Itxaro Bordak *Intimismoa, zartagailu* lanean aipatzen



zuen bezala, intimismoa emakumearen gotorleku bilakatu da: Meaberen “klastroa” eta “barrendegia”, Bordak “babesleku eta okupatzeko gunetzat” duena (2004: 43).

Izenburutik hasita, *Oi, hondarrezko emakaitz!* izenburu ponpoxoa dela esango luke gaur egungo Meabek. Emakaitz hitzari dagokionean, Orotariko Euskal Hiztegian ageri ez den hitz bat da. Aldiz, Meabek “moldakaitz” eta “izukaitz” izenondoan esanahiz darabil: “-gaitz” atzizkiak “ezin dena” adierazi nahi du, ezinezkotasun kutsu bat emanez “eme” erro semantikoari. Beraz, “emakaitz” deitzen dio bere buruari: emakume bihurtu ezin dena, neurri batean Amaia Lasak “Ezin izanik” poeman adierazten zuen “jaseko emakume” izateko zailtasun bera iradokiz. Hala ere, Meabek emakaitz hori “hondarrezkoa” dela eransten du, hau da, ahula, hauskorra eta sendotasunik gabea. Ondorioz, bere nortasuna paradoxikoa da, eta idazteko gaitasuna zalantzan jartzen du. Ezin hobeto ikusten da hori bere poema honen amaieran islatuta:

Eta nahi nuke, baina ezin,  
mamiok edertasunezko ore egin,  
eta zapaldu,  
nire oinaren aztarna utzi  
ahazturaren jauregi aurreko espaloian  
han non poesia pozezko sari zuri  
bihurtzen den.  
Amen. (1999: 29)

Aipatu behar da, emakumezkoek estilo propio bat eraikitzea dutela xede, ez sinadura femenino bat. Subjektu femeninoak eratzen dituzte kolektiboki, hizkera berriei, ikuspegi berriei eta elkarrizketa interesgarriei bide eginez. Hala ere, emakumeak ahots propio baten bila aritzeak ez du esan nahi ahots bakar baten bila dabiltzanik (Hermosilla, 2011: 75). Testu mota oso ezberdinetan ager daiteke ahots propio hori, testu bakoitzaren motaren arabera ezaugarrituz eta moldatuz, funtsean, horretan datza aniztasuna (Hermosilla, 2011: 76). Meabek lehen liburuak ahots berri femenino baten behar hori erakusten du eta esan daiteke gaur egun literaturan duen tokia definitzeko lan garrantzitsua izan dela *Oi, hondarrezko emakaitz!*. Halere, hurrengo formulazioetan, lehen liburuko erregistro liriko emotiboa eta transzendenteari beste enuntziatio modu batzuk gehituko zaizkio, eta Meabe jostaria eta ironiko-kritikoa azaleratuko dira, Rosalek (2013: 366) dioen moduan, erregistro ironikoa eta parodikoa baitira emakume

poesia garaikidean gehien erabiltzen diren enuntziazioak haien ikuspuntu kritikoa iradokitzeke.

### 3.2. Gorputzaren hizkeraren transgresioa

Antzinateko pentsamendu filosofiko-erlijiosotik hasita, emakumearen gorputzak konnotazio negatiboa izan du, horregatik, bere buruaren ukazioa eta bere desiraren ukapena emakume arrakastasunaren ardatz bilakatu dira. Ikusi besterik ez dago zenbait poematan nola egiten zaion erreferentzia emakumeari: etxeke aingeru, gerlarien babesleku, pasiboa, sentibera, arraia, diskreto, eta halakoa ez denean, *femme fatale* gisa irudikatua. Hori dela eta, Herrosillak dio, emakumeek borroka luze bat egin behar izan dutela estereotipo negatibo hauei guztiei aurre egin eta gizonek definitutako horretatik ihes egiteko (2011: 78). Horregatik, emakumearen gorputza inguratu duten tabuez liberatzeko hizkera esplizitua, emakume errealean gorputzen aldarrikapena eta desira propioaren aldarrikapena partekatzen duten ardatz tematiko gisa. Hona hemen zenbait zehaztapen.

#### 3.2.1. Azalaren kodea: gorputzaren kodea.

Aurrez aipatu bezala, emakumezko poetek ahots berriak eta hizkera berriak sortu eta plazaratu behar izan dituzte. Zenbait modu ezberdin daude horretarako, baina Meaberi dagokionez, gorputza da ahotsari bide egiteko darabilen bitartekoa. *Azalaren Kodea* izeneko bere bigarren poesia liburua da horren erakusle, eta hurrengo liburuetan bermatu egin du ildo hori. Izenburutik bertatik, zuzenean gorputzeko hizkerari egiten dio erreferentzia, eta poema liburu osoan horri buruz idatziko du. Gorputza izango da lehen liburuan sortzen duen ahots femenino hori ardaztuko duena, eta modu honetan, *Oi, hondarrezko emakaitz!* lanean hasitako autoafirmazioarekin jarraituko du, hizkera berri bat, azalaren kodea zifratuz. Izan ere, Meabe eta Borda (2018) bat datoz gorputzak poesian oso gutxi sartu direla esatean, eta euren belaunaldiak horri bide eman diola azaltzean. Meabek dioenez, “gorputzetik eta gorputzei buruz hitz egiteak jarraitzen du oraindik ere izaten transgresio modu bat” (2018). Bestalde, *Idazleen gorputzak* (2011) elkarrizketan euren gorputzen eraginez dihardute emakume idazleak, deserosotasunetik, baikortasunetik zein itxaropenetik. Bada, honakoa dio Meabek berriro ere gorputzaren hizketak dakarren transgresioari buruz:

Identitatearen bilaketari lotuta, desira esplizitatzeko, heriotzari buruz hausnartzeko, eta kode alternatibo bat aldarrikatzeko erreminta modura. Emakumeak bere gorputzari buruz idaztea atal espezifikoa aipatuz —klitoria, bagina, titiak...— transgresioa egitea da. (Rodríguez, 2019: 58).

*Azalaren kodean* etengabeak dira hortaz, gorputzaren aipamenak eta batez ere emakumearen gorputz atal sexualenak. “Memoria ez galtzeko oharrak-3” poeman “Bularrak lehertu guran nituen. Euria ari zuen nire klitori gainean.” gisako esaldiak aurki daitezke. “Diagnostikoa” olerkian ere, gorputzaren presentzia nabarmena da: “gorputzeko ehun”, “azala”, “ikus-fokua”, “pseudopodo”, “belarri”... Izan ere, “Kodea” poema metapoetikoan dioen moduan, “Bestelako kodea aldarrikatu nahi dut: hitzarena ez bezalako kodea,” gorputzaren, azalaren kodea. Horregatik, modu esplizitoan, nabarmenean eta disruptiboan agertzen da gorputza Meaberen poesian lexiko oparoaren bidez: haragi, atomo, zelula, feto, gernu, birus, burmuin, hezur, mami, azal...

### 3.2.2. Bestelako gorputzek ere hitz egin dezakete

Gure kulturari beti identifikatu izan da emakumearen gorputza objektu behagarri edo desiragarritzat. Emakumearen gorputza oso sexualizatua izan da oro har, eta bertan giltzapetua ikusi da (Montagut, 2015). Hala ere, emakumeek hori eraitsi eta gorputzen aniztasuna aldarrikatu dute poesian, eta horren adibide garbia da *Azalaren Kodea*. Horregatik, Bordak Meaberekin egindako elkarrizketan (2018) azpimarratzen du hiztegi positibo bat sortu dela gorputzen inguruan hitz egiteko, zeina isuri, zauri eta imperfekzioez aho bizarririk gabe jarduteko parada eskaintzen duen. Horren erakusle garbia da Meaberen bigarren liburu honetako “Antsien oharrak-2” poema. Izan ere, emakumearen gorputz ez kanoniko bat, gaztetasuna atzean utzi duen gorputza deskribatzen du:

Haragi horrek onetsi egiten ditu bere pitzadurak,  
fetuen bolumenak utzitako labirintoak,  
gernuaren erantzun anonimoak,  
koipe-soberakinak. (2000: 18)

Gizarteak inposatutako eredu ideal edo fetitxetik ihes egiten duen gorputzaz ari zaigu Meabe. “Ni poetikoak” jendarteak ezarritako estereotipoetatik ihes egin nahi du,

eta bere gorputza den bezelakoa onartzea du helburu, besteen begiradapetik aldenduz. Emakume helduaren gorputzean ohikoak diren ezaugarriak aipatzen ditu: pitzadurak (zimurrak), haurdunaldiaren osteko estriak, “gernuaren erantzun anonimoak”. Bestalde, ezaguna da Meabek kristalezko begi bat duela, eta hori ere gorputzaren parte sentitzen du, bere izatearen zati eta hari erreparatu zion bekoz-beko *Kristalezko begi bat* (2013) eleberrian.

Emakume errealen gorputzak imperfektoak dira eta emakume helduenak are imperfektoago. Horregatik dira hain hertsagarri emakumezkooi ezartzen zaizkigun estereotipo eta kanonak, behagarri ala ez behagarriztat kalifikatzen den emakume irudiaren aroan gaudelarik. Gizonezkoen poesian kanon horien barnean kokatzen diren gorputzak izan dira mintzagai. Honen haritik, Virginia Truebak (2009), Teresa de Jesusen hitz hauek ekarri zituen bere lanera: “Zentzugabekeria bat da gu aingeru bihurtu nahi izatea lurtarrak izanda”. Horrekin gorputzen errealitatearen aldarrikapena egin nahi du De Jesusek, bere gorputzetik hitz eginez. Emakumeek literaturan betidanik idatzi eta hitz egin izan dute euren gorputzetatik, boterearen menpe egon den espazio horretatik, alegia (Trueba, 2009: 235).

Meabek ere gorputzen errealitatea islatu nahi izan du *Azalaren Kodea eta Bitsa eskuetan* lanetan. Horren adibide da “Besteak” poema. Bere buruaren aurkikuntzan dihardu “ni poetikoak”. Jendarteak beste emakume batzuekin alderatzera bideratu gaitu emakumeak, gorputz, ideia eta izaeren aldetik. Honen harira, negazio konstante bat izango da poema hau:

Ez dut izan nahi Teresa Calcuttakoa, maitatuz gurutze bat non iltzatu esku betihuts hauek bankuko kartillekin batera. Ez dut nahi Kareninaren antzik, trenbidean herioari turrir egin ezinik larrutan babesturik. Ez dut nahi bihurtu bi izpiritu korapilatu, otalurretan galapan, Catherine eta Heathcliff, eta patuari lotu. Ez dut nahi Saforen kutsurik, peploen azpian muztioa miazten edo labar beltzetan heriotza limurtzen (2010: 30).

Deseraikitako emakumeen irudiei, irudi berri errealak jartzea ezinbestekoa da poesian. Emakumeen irudiei heltzeko, ironia eta parodiak paper garrantzitsuak beteko dituzte (Rosal, 2010: 102). Juan Bonillak hezur-haragizko emakume bat irudikatu zuen bere “Oferta de empleo” izeneko poeman. Lan eskaintza baterako proposamena egiten du bertako baldintza denak betetzea ezinbestekotzat hartzen duen neurrian. Bertako baldintzek ordea, emakume konkretu bakar baten perfila irudikatzen dute, mugikorreko

zenbakia eta helbidea ere baldintza gisa jarritz. Ironiak eta parodiak pisu handia dute poema horretan. Arestian aipatu dugun Meaberen “Antsien oharrak-2” (*Azalaren kodea*) poeman ordea gorputz erreal bat irudikatzen du Meabek, baina “nik haragi berri batekin egiten dut amets” aitortu du, hortaz esan daiteke disoziazioa iradokitzen duela bere haragiak edo gorputzak onartzen duenaren eta bere “ni” intimoaren artean, azken horrek bestelakoa, ideala, perfektoarekin egiten baitu amets.

### 3.2.3. Emakume desira eta erotismo femeninoa

Emakumezkoak beti izan dira desira-objektu pasibo gizonen begiradapean. Ordea, poesian emakume ahots berriak sartu diren unetik, objektu desiratu izatetik, subjektu desiratzailerantz igaro dira, eta ezin argiago islatzen du hori Meabek “Memoria ez galtzeko oharrak-4” poeman. Ikusten da “ni poetiko” femeninoa desiratzen duen subjektu dela eta gainontzeko maitale guztiak objektu paperean daudela. Maitaleak dira bere atzetik dabilzanak eta horren aurrean, axolagabe eta libre jokatzen duela subjektuak.

Esan bezala, emakumea objektu sexualizatu gisa agertu izan da gizonen orain arteko poesian, eta gutxi hitz egin izan da haien sexualitateaz eta erotismoaz. Emakumeen ahots berriak plazaratzearekin batera, ezkutuan zeuden gaiak azaleratu dituzte, eta bide batez, euren bidelagun bihurtu: betidanik ukatu zaion gorputzaren kontrolarekin batean, emakumeen sexualitatea eta erotismoa azaleratu dira. Miren Agur Meaberen poesian erotismoak izugarritzko indarra du. Ikusi besterik ez dago *Azalaren kodea* liburuko zenbait poemetan dauden aipamenak:

“Euria ari du nire klitori gainean” (*Memoria ez galtzeko oharrak-3*)

“Armiarma-sarean zehar ostadarra ikusten nuen zuk bultza eta bultza ezerezaren kontra egiten zenidan bitartean” (*Basalarrosek mihazkatu dute*)

*Bitsa eskuetan* liburuan ere ez dira gai erotiko eta sexualak falta. Lehenik eta behin, liburu horren azalari erreparatuz gero nahiko irudi sentsual batekin egingo dugu topo, emakume biluzi baten gorputzarekin, zeina bainu bat hartzera doan. Liburuan zehar erotismoari loturiko zenbait poema daude, horien artean, bere erritmo erotiko extasiatuagatik nabarmendu dugun “Salmoa”. Gaiari dagokionean, maitasuna eta erotika

dira aipagarrienak. Gizonezko bati zuzentzen zaio “ni poetikoa”, eta “handi” irudikatzen du gizon hori: “zure esku handiei begira”. Gorputzari oharturiko azalpenak etengabeak dira eta zenbait gorputz atal ere erakusten dizkigu: gorputza, bihotza, ezpainak, esku, aho, orezta, ahotsa, azala, hankak, adurra, hatsa, besoa, altzoa... Desira gorputzetik eta gorputzez hitz egiteko behar bat zegoen. Gizonezkoarenganako erotika da nagusi, eta erakarmena ere gorputz-isurien alusioz markatua da: “zure bitsak zure gatzak zure esneak”, “lasterka nazazu lauhazka lasterkatu lau hankatan adurra adurraren truke eta adurrean talko-hautsa”, “zure musu bat sorbalda biluzian egunsentian hain handi eta eder eta on baitzaitut”.

Ondorioz, esan genezake erotismoak indar handia duela emakumezkoen poesian, eta baliteke bere indar transgresoreagatik eta sortzen duen asalduragatik izatea hain omnipresentea. Miren Agur Meabek diskrezioaren hesiaren deseraikuntzan maitasuna eta erotismoaren adierazpen molde ezberdinak landu ditu: intimoa eta lirikoa, nahiz gordina edo jostaria, eta ez dira falta sarkastikoa edo nostalgikoa ere. Ana Rossettiren “Chico Wrangler” poeman, esaterako, emakumearen begirada erotikoak goitik behera zeharkatzen du objektu paperean agertzen den gizona, eta rol aldaketa bat irudikatzen du (Ugalde, 2018: 151). Aditu honek, Lanzen (2007: 91) hitz batzuk dakartza bere testura eta ahots berritzaileenetako gisa aitortzen du Rossetti bere poesia erotikoa azpimarratzeaz gain. Gauza bertsua antzeman dugu Miren Agur Meaberen poeman.

Erotismoak eta erotizismoaren errebisioak paper garrantzitsua jokatuko dute emakumeen poesian. Autoerotismoak ere plazarako jauzia egingo du emakumeen eskutik, eta ahobizarririk gabe hitz egingo da emakumeen zein gizonezkoen masturbazioaz. Aurreko ideari lotuta, Maria Rosal Nadalesek (2010: 107) dio, emakumearen sexualitateari indarra ematen zaiola, eta gai tabu izatetik gai publiko izatera igarotzen dela, neurri txikian bada ere. Francisco Castañoren poema bat horrela amaitzen da: “Tú necesitas la mano entera,/ yo con el dedo me hago feliz” (“Le chatiment d’un faune”, apud Rosal, 2010: 107).

Erotismoarekin batera poesian oso ohikoa izan da maitasunaren inguruan jardutea, are gehiago, esan liteke gai nagusia berau izan dela eta emakumeen poesiaren gai tradizionala da. Hala ere, gizonezkoena baino errealagoa da emakumezkoen poesian

islatzen den maitasuna, “en la lírica de mujeres la experiencia amorosa se manifiesta más real, basada en una vivencia compartida” (Hermosilla, 2011: 79).

Emakumezkoek ez dute maitasun beraren edo maitasunaren ikuspegi beretik idazten. Honen inguruan, Rosalek (2013) honakoa dio:

El ideal del *amor eterno* y el concepto popular de *media naranja* son puestos en entredicho, muy en particular desde presupuesto feministas. Por ello, no es de extrañar que sea entre las poetas más especialmente combativas donde encontremos el diseño de nuevos sujetos líricos que responden a estas cuestiones. En este sentido se rechaza el concepto del amor romántico, en tanto que legitima las relaciones de poder e incluso las actitudes violentas –sean de índole física o emocional– contra las mujeres, a la vez que supone un obstáculo para la propia identidad femenina. (Rosal, 2013: 345).

Miren Agur Meaberen kasuan, erotismoak atsegina eta plazerra iradokitzen badute ere, maitasuna ardatz duten poesiak arrakalak, hutsuneak eta nostalgia iradokitzen dute gehienetan, maitasun ez-perfektuak eta dezepzionanteak. Horren lekuko dira, esaterako, *Bitsa eskuetango* lehen poemak, esate baterako, “Definizioa” delakoaren amaieran dioelarik “Amodio koldarretatik ihesi nabil/ lapurtutako moto batean./Bateria jotzen dut ilunpean” (11) , edota “Bigarren bizitza” izenekoan lur jo duen maitasuna historiaren amaieran dioelarik, irudi aski espresiboez:

Atera naiz isilean etxetik, lokatzetan utzirik oinatzak,  
Giltzari odola dariola. Banoa, ea zertan den beste airea.  
Bigarren azala, bigarren kodea. (2010: 34)

Eta maitasun historia hori atzean uzten ikastea da hurrengo poeman “Hutsaren begian” mintzagai duena:

Ohitzen ari naiz esaten  
Ez nauzula maite, ez zaitudala maite.  
Moi je ne suis plus ton amour, toi tu n’est plus mon amour.  
Horixe ikusten, horixe onartzen, benetan ulertzen (2010: 36)

### 3.3. Genealogiak

Emakume poeten lanetan indar handia hartu du genealogia feministei atxikitzeak. Eredu femeninoak izatea lagungarri da hutsetik sortu behar izan duten

emakumeen kasuan. Miren Agur Meabe ere bere poesia liburu berrietan genealogia mota ezberdinez mintzatu zaigu: genealogia familiarraz eta poetikoaz, bereziki.

### 3.3.1. Genealogia familiarra

Genealogia familiarrari dagokionez, *Bitsa Eskuetan* bere hirugarren poema liburua da aipagarriena. Izan ere, hiru atalez osaturiko liburu honetan, bigarrena amari eta haren heriotzari eskaintzen dio oso-osorik. Horrez gain, aurreko bi liburuetan bezala, bere buruaren idazle eta pertsona definizioak zertzelatzen jarraitu du eta gorputzaren kontzientzia transgresoretik idazten jarraitu du jendaki ororen kezkez. Arestian aipatu gisan, ordea, genealogia familiarren gaia abordatzen du liburu honetan atal oso bat eskainiz bere amarekiko harremanari eta haren galerak ekarritako sufrimenduari. Atal horretako poemetan aipagarriena “Hobia” litzateke. Poema honetako hiztuna eta “ni poetikoa” Miren Agur Meabe beraren ama da, zeina hil ostean bere bizitzari buruz ari den hitz egiten. Meabek amak berarentzat izan duen garrantzia azpimarratzen du poema honetan, zehar bidez. Haren heriotzaren dolua hizkera eta erregistro liriko ezin finagoez tratatua ikus genezake eta *Bitsa eskuetan* liburuko atal garrantzitsua bete bazuen, 2020koan ere berriro hartuko du garrantzia. Izan ere, Meaberen genealogia pertsonalean emakumeek osaturiko unibertsoaren esperientzia gailentzen da, *Kristalezko begi bat* liburuan zabalki garatu zuen moduan, itsasoan hilabetetan egoten zen aitaren ausentzia luzeaz inguratua.

Meabek aldarrikatu izan du emakume batek ez duela zertan ama izan, eta bere poemetan gutxitan irakurri ahal izango dugu bere amatasunari buruzko erreferentzia zuzenik, baina biri buruz mintza gaitzke. Batetik, emakume haurdunaren pentsamendua adierazten duena:

Ni, barrurantz begira eta  
barrurantz berbetan.

Zu, nire sabelean,  
belarria ipinita eta lo aldi berean,  
nire izena ikasten. (2000: 62)



Edota senarrarengandik banatzean, Joanes semeari eskainiriko “Jardin Botanique” poeman harekiko ama-ardura aitortzen du, hauraren gurasoen arteko maitasuna agortua dela aitortzean:

Ez dakit zer jardin uzten dizudan, semea.  
Berde kamuts nahi luke zure udaberrian  
Kristalezko negutegi honen maketa hautsiak (2010: 38)

Amaren figura oso garrantzitsua izaten da oro har, sorleku eta babesleku izaten baita eta maiz omenaldi eta eskaintza bereziak egiten dizkiete euren amei. Esan liteke halere, nahikoa gai konplikatua dela zenbait emakumerentzat eta horren adibide da Meabe. Amatasun eredu guztiz “emana” eta entregatuaren ereduaren aurka azaltzen da modu argian *Kristalezko begi bat* liburuan, non luzaz garatzen duen ama eredu ezin maitekorragoarekiko zorraren gaia, eta aldi berean horrek berak amaren bizitza bizi gabearen trajedia onartua, diskrezioz eramana.

Bestela esanik, Milia Lasturikoaren “azpian lur hotza eta gainean harria”ren testuartekotasunaz mintzatzearan aipatu den “Hobia” poeman ageri da emaitza:

“Zein ote da andre jasekoaren saria?  
Esku zabaletan urre gorria:  
bitsa eskuetan eta bits horren zauriak” (2010: 56)

### 3.3.2. Genealogia poetikoa

Genealogia familiarraz gain, genealogia poetikoak ere sekulako indarra du Meaberen poesian, eta batez ere *Bitsa eskuetan* liburuan. Liburua ireki bezain pronto Anna Akhmatova errusiar poetari “La vie en rose” izeneko poema-atala eskaintzen dio. Horrez gain, Julia Barella, Esther Jimenez, Marina Aoiz, Ana Gorria eta Viola Fisherováren aipuak sartzen ditu liburuan zehar, guztiak emakumezko poetak. Gainera, Forugh Farrokhzad euskaratu zuen Meabek 2020an. Hau ere funtsean, miresten duen emakume poeta bat da eta bere lana euskaratzeak asko esaten du Meaberen aukera poetikoez.

Horrez gain, aurrez aipaturiko nazioarteko erduetan oinarritu da maiz Meabe, besteak beste, Adrienne Rich, Audre Lorde, Alfonsina Storni, Alejandra Pizarnik, Sophia de Mello, Hélène Cixous edo Patti Smith. Azken honi dagokionez, Smithek miretsi egiten omen zuen Rimbaud eta honekin izandako amets erotiko bat kontaktzen du poeman. Meabek esaterako, “Patty Smith Rimbaudekin ametsetan” poema eskaini zion (*Bitsa eskuetan*, 2010: 24-25) eta hark Arthur Rimbaud poetarekin izandako amets erotikoaren “sekuela” edo jarraipena idatzi zuen, hark erabilitako poesia erlijiosoen estasia parodiatuz: “Patti ohean etzanda, iletik helduz Arthurri. Sugarra dira ilea eta biloa, o Jesus! Orratzak atzamarrak, o Jesus! Zuera naiz osorik”. Meabek bere amets propioaz hitz egiten du bere poeman. Smithen liburuko estiloan kontaktuko digu bere estasi erotikoa ere. Nabarmenak dira esaldi eta irudi erotikoak poema honetan, batez ere, bi paragrafo hauetan:

Hotzikara eragin dit koilaratxoak bular artean. Kikara beroan sartu ditu berak atzamarrak, intziri bat ito du. Ezpainetan ditut orain haren hatz luzeak. Zantar hori. Txupatu egiten dizkit belaunak bere lixazko mihiarekin.

[...]

Marraxoaren bazka ipurmamiak. Egin dzast, dzast, dzast, eder hori, hortxe, eman, segi holantxe, plas, plas, plas. Martiri bat bezala ireki naiz erditik. Tarratada eta bitsa. Izerdiaren perladuria. Zeurea naiz osorik, aleluia. Neurea zara osorik, aleluia, o Jesus! (2010: 24-25)

Poema honetan poetaren idazle autoafirmazioa, gorputzaren eta plazer erotikoa aldarrira nahiz genealogia literarioa bateraturik islatzen dira.

Genealogiak egiterako orduan, hainbat baliabideren jabe egiten dira emakumeak, besteak beste, mitoen errebisioaren jabe (Rosal, 2010 :105). Baliabide honen helburua, literaturan edo historian zehar pertsonaia bati ezarri zaion signifkazioa irauli, eta pertsonaiaarekin berarekin, beste istorio bat sortzea.

Emakumeek idatzitako poesian, maiz aurki daitezke mitifikatutako pertsonaien edota historian zehar ezagunak izan direnen errebisioak, gehientsuenetan emakumeenak. Gehien erabili dena Ulisesen istorioko Penelope da, zeina bere senarraren esperoan egoten omen zen 20 urtez, beste pretendienteak engainatu eta ezetza emanaz. Silvia Ugidosek, Peneloperen figura desberdin bat marrazten du: maiteminduta egon ordez, maitasunez mozorrotutako emakume beldurtutzat irudikatzen du, eta “gera zaitez

Ulises, izan zaitez zerri bat” esanarez dio Circeri («Circe esgrime un argumento» en *Las pruebas del delito*, 1997) (Rosal, 2010: 105). Maria Victoria Atenciak, bere aldetik, Lady Godivaren inguruan poema bat sortu zuen, mitoa eraldatuz. ”Godiva en Blue Jean” izena eman zion eta *El mundo de M.V* liburuan (1978) argitaratu zuen. Godiva, ezagun egin zen bere gaitetik zegoen senarrari aurre egiteagatik eta bere gorputz biluzia erakusteagatik. Atenciak, ordea, XX. mendeko emakume moderno baten itxura ematen dio, modako arropa daramana. Itxuran bakarrik ez, izaeran ere aldaketa bat nabari zaio Godiva berriari eta inorekiko menpekotasunari uko egingo dio. (Thompson, 2002).

Ikono kulturalen berrikuspen garaikide hauen helburua, emakumezkoen inguruan egin diren irudikapen gaiztoei ikuspegi berri bat ematea da. Ez da emakume hauen historia aldatu nahi, baizik eta historia bera gogorarazi eta ikusgarritasuna ematea modu orginal eta garaikidean. Adibide polita da Amaia Lasaren *Fantasia bat* (1997) poema. Bertan euskal literaturako Anbotoko Damia eta greziar literaturako Safo emakumeak elkartzen ditu. Safo emakume homosexuala zela aipatzen da eta Lasak poema honetan Anbotoko Damiarekin elkartzen du, itsasondoko harkaitz batean. Greziar mitoak dio, Safok ezinezko maitasun baten ondorioz, itsasondoko harkaitz batetatik egin zuela bere buruaz beste. Miren Agur Meabek ere Saforen mito edo genealogiaren aipamena badakar bere lerroetara “Besteak” izeneko poeman, baina ukatu egiten du haiekiko ahaidetasunik: “Ez dut nahi Saforen kutsurik, peploen azpian muztioa miazten edo labar beltzetan heriotza limurtzen” (2010: 30).

Izan ere, *Bitsa eskuetan* liburuan, genealogia literario edo sinbolikoek leku garrantzitsua hartzen dute eta *Nola gorde errautsak kolkoan* (2020) liburuan ere bai. Lehenengoaren sarreran topatzen dugun “Definizioa” (11) poeman bertan bere burua aurkezterakoan “Emakume kaieraduna naiz” esanez abiatzen da, eta berehala diosku “Ez naiz Wendy,/ Batzuetan hegan egin arren/ eta peterpanekin joatea atsegin”, gisa berean “Chagallen pinturetan bizi” nahi duena dela, “edo bestela, Silvioren abestietan hil”; edota aurrerago “Besteak” poeman dioen moduan bere burua beste emakume zenbaiten aurkako ispiluan ikusten du: Aurore Dupin, Mesalina, Teresa Kalkutakoa, Safo, Anbotoko Mari, Nazareteko Maria, Magdalako Maria, Enma Bovary eta beste hainbat “beste”.

Poemaren hasieratik, hauek bezalakoa izan ezina azpimarratzen du. Denek izan dute trabaren bat bizitzan emakume izate hutsagatik eta hauetako batzuek gaizki amaitu dute. “Ni poetikoak” ez du bere burua emakume hauekin alderatu nahi, hein batean, maila altuago batean kokatzen ditu euren historiagatik eta bera oso xume sentitzen da hauen alboan. Emakume horiek guztiek ispilutzat hartzen ditu eta uneoro bere burua kokatzen eta definitzen dabilela aitortzen du, baina mitifikazioetatik ihesi, bere natura hibridoa eta kontraesanez betea aldarrikatuz: “ni neu” hori autoafirmatzen du.

*Nola gorde errautsak golkoan* (2020) liburuko lerro artean ere topatuko ditu hainbat emakume izen: Lucy Westerna, Drakularen amorantea, Wendy Peter Panen laguna, izenik ez duen Yemengo neskatila bat, Ama Birjina, Scheherezade, Bronte ahizpak... Horietako batzuk, Meaberen alter egoa dira, besteak bere solaskideak edo mezu jasotzaile soilak. Oihana Larretxeak dioen moduan “Denak txirikordatuz mintzatuko zaigu ahizpatasunaz, parasitismo sentimentalaren arbuioaz, eta independentzia emozionalaz” (2020).

Amaitzeko, interesgarri da, bere buruaren definizio irudien artean “uharte isila” (31) erabili izana. Izan ere, Meabek aipatzen dituen mitoen artean, Eolia irlaren legendaren errebisioaren bidez mintzo da maitasunaren desiraz *Bitsa eskuetan* (2010: 78) liburuko “Eolia” poeman. *Odiseako* isla mitiko bat da izatez Eolia. Uhartea aldakorra da, flotantea da, kokaleku finkorik gabea. Meabek olerki honetan, bere burua berdintzen du Eoliarekin kutsu sentsual bat emanaz:

Mitoak dio Eolia lorez beterik zegoela.  
Hostotsu irudikatzen dut uharte hori, nire pubisa lez,  
baina alua mehetu zait jada, bular-muturrak zurbildu.  
Eolia jitoan omen zebilen hara eta hona,  
sekula inor bertara ez itzultzeko eran.

Ni ere banaiz Eolia bat; irrikaz, ordea, aurki nazazun,  
betazalak argiz apaindurik, ahoa zeure gustuko esaldiz...

Poemaren amaieran ordea, ukatu egiten du Eoliarekin duen antzekotasuna, izan ere, desamodioaren zantzuak topa daitezke:

Oker dihardut, baina, oker dihardut.  
Ez naiz Eolia eta ez nabil nora ezean.

Zu ez zara nire fruituz elikatzen.

Zuk ibilitako urak ez dira itsaso eskerge hauek. (2010: 78)

Miren Agur Meaberen poesiagintzan guneko tematiko horiek garrantzia handia badute ere, ez dago ahanterik bestelako gai ildo aski finkoak nabari ditzakegula bere poesian, gure lan honetan behar bezala azaldu ez ditugun arren. Horien artean bizpahiru nabarmeneraziko genituzke nagusiztat: lehenik, auzi soziala, etorkinen, langabeen, edota herrialde azpigaratuetako indarkeriaren biktimen inguruko kontzientzia bizia. Bigarrenik, herri kultura eta bakegintzaz, sormenaz bizitzaren justifikazio gisa, erlijioaz biktinario bezala, emakumeen gizarte betebeharren kontzientziaz, amodio erromantikoaren kritikaz, ama alaben arteko zaintzaz... Hirugarrenik, berriz, bizitzari heriotzari, denborari eta bakardadeari buruzko hausnarketa ezin utzizkoa zaio Meaberi bere sorkuntza literario osan zehar, poeta orori bezala. Orduan irekitzen da Meaberen erreferentzien mundua Anna Athmatova, Arthur Rimbaud eta Vladimir Holanen aipamenetara. Aipagarri da euskaldunen artean, Jose Luis Otamendi, Iñigo Aranbarri edo Xabier Lete agertzen direla. Azken horren poesia gai bati erantzunez osatzen du, esaterako, *Bitsa eskuetan* liburuko pasarteetako bat “Gaza grisa”, “Locus amoenus”, “Ituna”, “Piztuera” eta “Uraren estrata” (15-23) poemek osatua, Leteren hitzei erantzunez. Hark esan da “Lanbroaren beste aldean idatzirik dagoen halabehar itsua baizik ez da bizitza” (15) eta Meabek ere Leteren hizkera tonu liriko solemne bera hartzen du, bizitzaren esperientziaren ondorioa hustasuna dela aitortzeko oiartzuarrari, hark ohi zuen bezala, egunari eginiko alusio ondo ekarriaz :

Hustasun hau ez da besterik bakoa, ez da kasuala.

Ai lagunok! Ardo-kopa altxatzen dut

Baratzeko hornei begira

Eta kardu belarra bezain arina naiz sentitzen.

Erreturak errautsak utzi ditu lurrean.

Haizeak bekokira dakardidan polen arrea.

Bitsa, ez dut besterik eskuetan. (2010: 17)

#### 4. Ondorioak

Emakumeak (poetak zein ez) itxialdian egon dira urte luzez. Horrek, idazketa intimoagoak egitera bultzatu ditu, eta gutunak, memoriak eta egunerokoak izan dira

nagusi euren lanen artean. Ana Casasek (2017: 41) dio, garaiak ezberdinak izan arren, poesia garaikidean ere bizirik dirauen ezaugarri bat dela hau eta lehenengo pertsonan idazteko hautua egin izan dela. Emakumeek eroso dihardute autofikzio bidez, eta hizkera askea darabilte euren barneak husteko. Modu honetan, autorea protagonista izango da, zeina bere datu errealetan oinarrituta eraikiko duen istorioa, nahiz eta fikzio puntu bat izan. Ahalik eta subjektiboena izaten saiatuko da. (Casas, 2017: 42). Itxaro Bordak ere emakume poetek beren barrendegitik idaztea berarizko erabakia izan dela iradokitzen du (2014): “Intimitatearen erabilpena, euskaraz idazten duten emakumeentzat, bazterketaren ezpondatik beraien boza oraindik ere entzunarazteko eta aberriaren ereduaren deseraikitzekeo baliabidea dela ematen du”. Are gehiago, “Intimitatea da hondarrean okupatzeko geratzen zaigun leku huts bakarra” (*Intimitatea, zartagailu*, 2014: 43).

Miren Agur Meaberen poesiaren azterketaren bidez, idazkera intimista duela eta intimismo hori bere testuetan bortitza, dramatikoa eta imaginatiboa dela esan dezakegu. Gaiei dagokionez, bere poesia propioaz maiz idazten du, eta baita idazteak bere nortasuna eraikitzekeo duen garrantziaz ere. Bere burua eta identitatea eraikitzekeo baliabidetzat du idaztea, non ahots femenino intimo batek lagunduko dion horretan. Gisa hontara, aurrez plazaratu gabeko zenbait gai, ahots eta molde berri azaleratuko ditu. Emakumezkoek sortutako ahots femenino horrek, intimoa den gorputza izango du babesleku eta bide batez, plazarako bidea egitekeo bidelagun. Esan liteke, ez dagoela Meaberen poesia ulertzerik gorputzik ezean, hau da, berak darabilen abiapuntu nagusia gorputza izango da. Gorputzaren tratamendu moduari dagokionez, berriz, emakumearen sexualitate, erotismo eta desirak adierazpen modu aberatsa dute poeta lekeitiarraren obretan, sentzuala eta irudimentsua, eta bera izango da seguruenik euskal poesian gai hauei bide eman dien lehen poeta.

Genealogia feministaren arloan amaren heriotzaren inguruko poemetik bakarra aztertu badugu ere egileak amaren kastaren erreibindikazio nabaria egiten duela ikus genezake: haren ama eredu (bere buruaren ukapena) eta entrega guztizkoa arbuaitzen badu ere, esker sakona, egiazkoa aitortzen du. Genealogia poetikoari dagokionez, berriz, Anna Akhmatovatik hasi eta Patty Smitherainoko ibilbidean edota euskaratu zuen idazle pertsiarraren erotismo askearen desinhibizioan abaniko zabala aurkitzen dugu. Meabek nazioarteko zenbait eredu izan ditu bere ibilbidean lagun, eta eragin zuzena izan du

honek bere idazketan, baina bere nortasunaren konplexutasunaren afirmazioa eginez, mitoekiko genealogian kokatzeari uko egiten dio.

Laburbilduz, emakumezko poetek berrikuntza ugari ekarri dituzte poesiaren mundura; are gehiago, ikuspegi berri bat sortu dutela esan daiteke. Ikus daiteke emakumeen poesia indartzen ari dela urteen joanarekin eta etorkizun oparoa izango duela pentsa genezake. Horren adibide da Oihana Arana (2001), idazle eta bertsolari eskoriatzarra, zeina bere lehen poesia liburua argitaratu duen 2021.urte honetan, eta XXI.mendean jaiotako lehen euskal poeta bilakatu den *Lazunak Azkazaletan* lanarekin. Idazle berri hauei bide egiten ordea, lan honetan aipaturiko zenbait emakume egon dira eta euskal literaturaren kasuan, Miren Agur Meabe litzateke horren ordezkari nagusia.

## 5. Bibliografia

ALTZIBAR, X. (2008): “Bizenta Mogelen gabon kantak eta 1828ko bertsoak”, *Bidebarrieta*, 19, 2008, 26-66.

ALVAREZ URIA, A. (2005): “Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian: Dorrearen arrakalak agerian uzten” *Jakin*, 148, 37-75  
<<https://www.jakin.eus/aldizkaria/artikulu/euskal-emakume-idazleen-lekua-lite-raturaren-historian-dorrearen-arrakalak-agerian-uzten/3157>> [2021/04/19]

BORDA, I. (2013): “Intimitatea, zartagailu”, *452°F. Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 9, 42-55,  
<[https://www.452f.com/pdf/numero09/09\\_452f-mono-itxaro-borda-orgnl.pdf](https://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-itxaro-borda-orgnl.pdf) >  
[2021/05/06]

BORDA, I. eta MEABE, M.A. (2018): Elkarrizketa. Hiru Damatxo eta Islandia ekoiztetxeek sortutako *#TokizKanpo* izeneko saioan.  
<<https://www.youtube.com/watch?v=rfLv8uc0GEk>> [2021/05/21]

- BIDADOR, J.M. (1996): “Euzkerea aldizkariaren andrazko poeta bi: Sorne Unzueta «Utarsus» eta Pantzeska Astibia «Onintze»”. *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-10-11 eta 1996-10-18.
- CASAS, A. (2017): “Punto ciego del yo: autoficción y padecimiento en Meruane, Nettel y Meabe”, *Yo-grafías: autoficción en la literatura y en el cine hispánicos*, 2017, Madril, 41-54.
- ESTANKONA, I. (2010): “Erreskadan idatzia”, *Deia*, 2010-10-16. Sarean <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=4979>> [2021/06/02]
- ETXEABARRIA, I. & KALTZAKORTA, J. (2009): *Herri Literatura*. Eusko Jaurlaritza.
- GOIKOETXEA, J. (2016): Prentsurrekoa. Lisipe bildumaren aurkezpena. <<https://www.youtube.com/watch?v=VLP5qenTqvg>> [2021/05/17]
- GUTIERREZ, I. (2001): “Azalaren kodea”, *Idatz & Mintz*, 2001-11. Sarean <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=3815>> [2020/05/16]
- HERMOSILLA, M.A. (2011): “La poesía de mujeres en España: la búsqueda de una identidad”, *Alfinge*, 23, 65-88. <<https://helvia.uco.es/xmlui/handle/10396/14010>> [2021/04/19]
- JUARISTI, F. (2001): “Azalaren oroimena”, *El Diario Vasco*, 2001-01-06. Sarean <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=131>> [2020/05/16]
- KALTZAKORTA, X. (1999): “Errose Bustintza (1899-1953)” *Bidegileak bilduma*, Eusko Jaurlaritza.
- KORTAZAR, J. (1995): “Euzkerea” eta “Yakintza” aldizkarietako olerkigintza, Labayru-Zornotzako Udala.



- LARRETXEA, O. (2020): “ “Nola gorde errautsa kolkoan” poesia liburuarekin itxi du triptikoa Miren Agur Meabek”, *Naiz*, 2020-11-20. Sarean <<https://www.naiz.eus/es/info/noticia/20201130/nola-gorde-errautsa-kolkoan-poesia-liburuarekin-itxi-du-triptikoa-miren-agur-meabek>> [2021/06/02]
- LASARTE, G. (2011): “Sarri apostolua eta inoiz euskalgeisha”, *Argia* <<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2262/bitsa-eskuetan>> [2021/06/02]
- LOPEZ, L. (2011): “Bidegurutzetik”, *Berria*, 2011-01-23. Sarean <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5063>> [2021/06/02]
- MAKUSO, J.R. (2010): “Minaren usaina”, *El Diario Vasco*, 2010-12-31. Sarean <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5055>> [2021/06/02]
- MONTAGUT, C. (2015): *Tomar la palabra: Aproximación a la poesía escrita por mujeres*. Barcelona: UOC.
- PEREZ GAZTELU, E. (2017): “Frantziska Astibia Etxegoien, Onintze, Astitxe (Gerraurreko) emakume fededun militantea”, *Oarso aldizkaria*, 25, Errenteria 22-28. Sarean <[https://egela.ehu.es/pluginfile.php/4096941/mod\\_resource/content/1/astibia.pdf](https://egela.ehu.es/pluginfile.php/4096941/mod_resource/content/1/astibia.pdf)> [2021/06/02]
- RETOLAZA, I. (2009): “Azalaren kodea” in Kortazar, J. (zuz.), *Egungo euskal poesiaren historia*, Bilbo: EHU, 247-254.
- ROJO, J. (2010): “Esperientziatik”, *El Correo*, 2010-10-23. Sarean <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=4986>> [2021/06/02]
- ROSAL, M. (2010): “Mujer real frente a mujer soñada. Nuevas imágenes de mujeres en la poesía contemporánea”, *Ámbitos*, 24, 99-108 <<https://helvia.uco.es/xmlui/handle/10396/6622>> [2021/04/19]

- ROSAL, M. (2011): “Poesía Española escrita por mujeres a finales del siglo XX”, *Itinerarios*, 13, 157-167  
<<http://itinerarios.uw.edu.pl/poesia-espanola-escrita-por-mujeres-a-finales-del-siglo-xx/>> [2021/04/19]
- ROSAL, M. (2013): “La fractura del amor romántico en la poesía escrita por mujeres” *Sociocriticism*, 28, 343-370  
<<http://revues.univ-tlse2.fr/sociocriticism/index.php?id=919>> [2021/04/19]
- THOMPSON, D. (2002): “Cambiar de vestuario a Lady Godiva: la revisión de mitos en la poesía española contemporánea escrita por mujeres”, *Espéculo*, 22, <<https://webs.ucm.es/info/especulo/numero22/godiva.html>> [2021/04/19].
- TRUEBA, V. (2010): “*El poder del cuerpo. Antología de poesía femenina contemporánea*” *Lectora*, 16, 235-237.  
<<https://revistes.ub.edu/index.php/lectora/article/view/7238>> [2021/04/19]
- UGALDE, S. (2018): “La poesía de autoría femenina de la Transición vista a través de Los Encuentros de Mujeres Poetas (1996-2005)”, *Diablotexto Digital*. 4, 149-165. <<https://ojs.uv.es/index.php/diablotexto/article/view/15338/14211>> [2021/04/19].
- ZABALA, J.L. (2016): *Sautrela* (2016-05-28). Sarean <<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/sautrela/bideoak/osoak/4112026/bideoa-miren-agur-meaberen-azalaren-kodea-aztertu-dugu/>> [2020/05/16].

## 6. Eranskinak

### Geranioaren minipoetika

Jarraitzen dut sukaldean idazten  
makarroiak edo hitzak egosi bitartean.

Beste etxe batean. Geranio bat leihoan.  
Zurtoinak esku bat dirudi, zerbaiten eske.

Gertaerak paper-mozkin bihurtu zaizkit.  
Tentuz sailkatzen ditut, urrun galdurik begirada.

Baina zer esango dizut minaz? Zuk zer diozu?  
Minaren amuak tenk egiten dit samatik.

Trantze horretan aitortzen dizut dena:  
magalmina eta argidura eta bitsaren loreak.

Mezuei gantza kentzen dihardut labanaz,  
alfer-kinkallatik libratu nahiz ahotsa.

Badut erritmoaren sena, xehetasunetikiko joera,  
irudietarako gustua, emozioaz gogoetatzeko xedea.

Zer diostazu, oro har, emaitzaz? Esadazu  
benetako bizitza aski den benetako poesia egiteko.

### Salmoa

parentesi bat da nire gorputza  
argibideak onartzen dituena  
berrogeita zazpi urteko turmix bat da nire bihotza  
kalatxorien moduan miau egiten dut  
neure ezpainak haztatzean  
part jaurti ditut portura zapata burdinkarak  
ez zaitut nahi full time ez zaitut nahi full time  
soilik you you you

zure esku handiei begira  
zure aho maminari zure oreztei begira  
ez du ardura hitzak bai ahotsak  
zure bitsak zure gatzak zure esneak  
badakizu ez dela merkea armazoiak bazterrean uztea  
badakizu azala zirtziltzea dakarrela ortozik ibiltzeak  
lasterka nazazu lauhazka lasterkatu lau hankatan  
adurra adurraren truke eta adurrean talko-hautsa

iratzeko habia bat egizu biontzat bada toki bat basoan  
non basurdearen oinatza non oskila-soaren kanta  
non almendrak eta ardo zuria  
non zure hatsa eta koadrodun manta  
zure besoak txilarrezko bi hego gauzak esplikatzen  
zu nire salan zu nire altzoan  
zu min zaharrak sakabanatzen  
zu zauri berria oinaze sor berriz hornitzen

aintza eta bakea lurrean  
kale-kantoia jiratu eta batera  
txori bat pausatu baitzait sorbalda gloria  
zure musu bat sorbalda biluzian egunsentian  
hain handi eta eder eta on baitzaitut  
ardagaia eta su-lama  
gloria zu bedeinkatua zu eskerrak zuri ahuspez agur  
oi neure erraldoi oi neure masai oi neure irlako moai

## Hobia

Jaio nintzen Bilbon, 1933ko ekainaren 5ean  
eta Lekeition hil, 2002ko urtarrilaren 28an,  
68 urte nituela, gazte samar, hiru hilabeteen.  
Obarioetako minbiziak traizioz eraman ninduen.  
Hori-hori paratu nintzen, azkura jasanezina azalean.  
Gibela hainbeste loditu zitzaidan  
ezen zunda bat ipini behar izan zidaten bularpean,  
zornea kanporatzeko.  
Lasaitzearren esaten zidaten  
kamisoia zikintzen zidaten orban nabarrak  
betadineak eginak zirela.

Balioztat izan nituen nire azal fina eta izaera.  
Josten eta brodatzen ikasi nuen:  
inizialak kirruzko izaretan, bainikak manteltxoetan.  
Letra txikia neukan arren, berben amaierako buztanek  
beti salatu zuten nire abizenaren adore zuhurra.  
Matematikan abila nintzen txikitan.  
Martiri eta santuen bizitza antzeratzen irakatsi zidaten.  
Ez nintzen izan sukaldari aparta,  
baina ez nuen parerik flan, kroketa eta bizkotxoginean.  
Denda bat gobernatu nuen: oihalak, jantziak eta beste.

Gaztetan argal-argala, titibakoa nintzen  
(horregatik ez ninduten mutilek dantzara ateratzen);

ama egin nintzenez, berriz, esne ederrekua suertatu  
(lagunek, ostera, pelargonez loditu zituzten umeak).  
Ezkondu artean hankak estutzen ohitu nintzen,  
eta grinaz aitaren egiten  
Scarlett O'Hararen zinak oroitzean.

Beltzez ezkondu nintzen,  
lili-sorta eskuan, mantelina buruan.  
Itsasgizona hartu nuen senartzat.  
Oginoren egutegiak, beraz, balio gutxi guretzat.  
Lehorreratzen zen bakoitzean genuen ezti-gaua.  
Kanpaina luzeetan argazkiak bidaltzen nizkion,  
hogeitik gora berrogei urtean.  
Denetan utzi zituen ezpain-markak, malko-arrastoak.  
Maite nuen neuk ere, deabruaren jenioa zuen arren.  
Batzuetan arrazoi barik sumintzen zen, kaka zaharra!  
Baretzen zenean, besarkatu egiten nuen  
eta barka eskatu. Zenbat erregutzen nion, negarrez,  
beragatik, neugatik, ondo jakin barik zergatik.

Bi erditzek odolpikoak utzi zizkidaten uzkie betiko.  
Semea izan nuen; gero alaba.  
Batari onena eman nahi izan nion, mutiltxoari.  
Nekez hartu zuen bizitzako martxa. Ondo ote dabil?  
Alaba hazi nuen ametsak zaintzen diren eran.  
Erraza izan zen, begia galdu zuenean izan ezik,  
edo bere abortuen garaian.  
Zotinka egoten ginen biok telefonoaren alde banatan.  
Laster topatzen genuen kontsolazioa,  
berak koadernoetan, nik neure lanetan.

Garbi izan nituen nire zutarriak:  
etxeak jagotea, aurreko eta osteko;  
legeak betetzea, zeruko nahiz lurreko;  
obligazioa jartzea debozioa orduko.  
Belar-egoskiek laguntzen zidaten loak hartzen;  
geroago pilulak behar izan nituen.  
Zein ote da andre jasekoaren saria?  
Esku zabaletan urre gorria:  
bitsa eskuetan eta bits horren zauriak.

Orain ilunpean nago. Eskeleto bat naiz,  
traje-txaketa ona eta blusa satinezkoa,  
zurezko gurutze txiki bat altzoan,  
feltrozko larrosa bat eta galburuak eskuetan,  
ospitaleko azken opariak.  
Kotoiz butxatu behar izan zizkidaten sudur-ahoak.

Nire alabatxoa hitz eta pitz ari zen  
jendearen samin-agurrak hartzen,  
eta bisitei azalpen gehiegi ematen, xehetasun lar.  
Beti izan da formalegia, hainbesteko gizalegez hezia.

Hor goian badira granitozko aingeruak,  
lauburu zizelkatuak, koroa zimelak, ikurrina.  
Euriak tarras daramatza krabelin-pipilak,  
harri-kirriak, letra urrekarak, oinatzak.  
Hemen behean ez dago ezer.  
Faltan ditut lagun minaren kontuak,  
dendako apalak, senarraren zurrungak, alaba.  
Iloba hazten ez ikustea izan dut zigorra,  
«amuma» zelan deitzen didan ezin entzutea.  
Alabaina, ez naiz kexu.  
Egunsentiaren zain, bakean natza.

### Nire olerkia da

Nire olerkia da nik neuk eraikitako klaustroa.  
Aurrenik, liluraren zizelari eta ekinaren mailuari  
[herdoila garbitu.  
Ondoren, ezarri egiten dut edozein eromen-arrasto.  
Gero, hitzez hitzeko zutabe bihurtzen horma-oin hori,  
bizigai hautatuari eutsi ahal izateko.  
Geroago, metafora jostati naroz landu kapitelak,  
noizean behin neurritz gorako hornintzez esanaren  
[eder-oreka itoz.  
Gero eta gero, beti giltzarri bera dena aniztuz,  
bestelakotu egiten ditut irudien biribiltasunak eta  
[itxuren izurrak  
arkurik arku.  
Azkenik, beti baiko begirada batez  
iruzur horren iragangoetatik astiro paseatuz,  
ontzat ematen dut arkitektura hurrengora arte.  
Zati-zati eginik aurkituko dut akaso biharamunean,  
musen agerpen-ezak atzeratu eginen du inagurazioa,  
baina...  
nire olerkia da nire barrendegia,  
non harro iraun lezzakeen nire berbazko hesiak.

### Nire poesiaren sabela da

Nire poesiaren sabela da

beldur deritzon arrain labain iluna  
jakintzaren horma nagien kontra bilin-balaunka  
akiturik kulunkatzen den itsasgora.

Nire poesiaren sabela da  
zalantzaren sasiak urraturiko berba-iturri mehea  
agorten den urlo antzua.

Nire poesiaren sabela da  
ohe gaineko atorra zuri epela,  
arrats bete kirats  
kale oso bat euri,  
harkaitz gorenetan zauritutako arranoa,  
negarrez larunbatero urtzen den neskazahar  
[mozkortia,  
gausentian etxertzen den gurdiaren lasto-printzak,  
lasto-printzak hartzen dituen bidezidorra,  
maritalakoak,  
eta abar...  
eta abar...

Eta nahi nuke, baina ezin,  
mamiok edertasunezko ore egin,  
eta zapaldu,  
nire oinaren aztarna utzi  
ahazturaren jauregi aurreko espaloian,  
han non poesia pozezko sari zuri  
bihurtzen den.  
Amen.

## Antsien oharrak-2

Haragiak eta haragiak daude.  
Nik haragi berri batekin egiten dut amets.  
Haragi horren atomoek elkar maite dute  
ez dutelako ezagutzen  
ez jogurt desnatatuen iragarkirik  
ezta jantzi-dendetako tailen koderik ere.  
Haragi horretako zeluletara ez da sekula iritsi  
*konparazio* hitzaren oihartzunik.  
Haragi horrek onetsi egiten ditu bere pitzadurak,  
fetuen bolumenak utzitako labirintoak,

gernuaren erantzun anonimoak,  
koipe-soberakinak.  
Haragi horretan ez dago birus maltzurrik sorgor,  
ez baita sentikorra ispiluekiko.  
Eta bikain burutuko lituzke sintesi-erreakzioak  
nire burmuinaren eta hezur-mami-azalen artean.

## Memoria ez galtzeko oharrak-4

Nire maitaleak ikusi nituen desfilatzen,  
burumakur nire gorputzaren aterantz.  
Bazihoazen urrats geldoz erre-oparirako bidean.  
Hor ziren nire maitaleak,  
geriza bozatuak ezinaren oihu builatsua irentsita.

Neu nintzen aldare-harria,  
bildotsa,  
sastakaia  
eta besoa;  
haiek, orkatiletatik narras zeramatzaten  
aingura-zatiak,  
paisaje-pusketak,  
poema-birrinak,  
kalimotxo-zipriztinak.  
Agur egin nien eskuaz eta begiak bildu nituen:  
gatza neukan betazaletan.

Gero giltzak jaurti nituen urrunera,  
haragizko tenplu goibelaren baitara.

## Oferta de empleo

Preciso señorita de ojos negros,  
melena negra derramada en cascada por la espalda,  
uno setenta y tres de altura,  
estudiante de cuarto de Arquitectura,  
domiciliada en Vía Layetana, 17, octavo C, Barcelona,  
su teléfono ha de ser el 93 3 45 67 81.  
Imprescindible que haya leído tres veces  
La Gran Eulalia de Paolo Capriolo  
Y que cumpla años (24 esta primavera)  
El 17 de abril.  
Se ha de llamar Marta Trullols Aymé.  
Se le propone salir a tomar algo  
(aunque no sea en serio).  
Interesadas llamar al 93 4 53 17 04.  
Absténganse quienes incumplan uno solo  
De todos estos requisitos.



### Memoria ez galtzeko oharrak-3

Euria ari zuen nire klitori gainean.  
Tximistak lir-lar zetozkizun paparrera:  
odoletan zeundela zirudien.  
Baina itzalak ziren,  
azalaren lautadara etzatera etorriak.  
Zure sexuak kearen usaina zuen,  
nabarra eta zaharra.  
Aldiz, ni urdina omen nintzen  
eta oxigenoa lapurtu zenidan  
neure zulo arrosetatik.  
Zure hatz marroiak nire baginan,  
udagoieneko adar zurrinak.  
Paperezko zapia atera zenuen, ez dakit nondik,  
eta autoaren leihatilatik bota zenuen,  
umel eta zimur.  
Bularrak lehertu guran nituen.  
Euria ari zuen nire klitori gainean.

### Basalarrosek miazkatu dute

Basalarrosek miazkatu dute  
baselizaren zurezko arkupea.  
Hantxe, harrizko murruren kontra  
amodioa antzeztu genuen aspaldiko arrasti hartan.  
Euriak zelaiari erauzten zion busti-hotsa  
zeure hatzek atera zioten nire sexuari.  
Armiarma-sarean zehar ostadarra ikusten nuen  
zuk bultza eta bultza  
ezerezaren kontra egiten zenidan bitartean.  
Gero, trinki-tranka aldendu ginen errepidean aurrera  
gorputzei bihozminaren salda epela zeriela.  
Huraxe izan zen atzen enkontruetako bat,  
gure azal umelak ordurako bazekielarik  
elkarrentzat ez ginela.

### Jardin botanique

Gauza orok darama bere baitan bere hilobia.  
Beharrezkoa da jaustea  
larri zauriturik borrokan.  
Asko maitatzea. Asko sentitzea. Ilargia ikustea  
gorantz egiten gau askotan  
arima ilunpean duzula.

Jose Hierro

### *Joanesentzat*

Halaber, ari naiz eskuak irekitzen,  
esku hauek hosto koskatuak lakoak.

Egunen zikloa ez lotzeaz dihardut,  
zuri ez kentzeaz atalase debekatuen argia.

Nasaitu ditut entziklopedia-hatzak  
zu ernai a zarelako, haritza, masusta.

Nola azaldu lupetz bihurtzen dela hautsa;  
legar taxutzen harkaitza; ozpin, mahatsa.

Txorikumearen pisua baduzu ozta-ozta,  
nakarraren argi mehea harea artean.

Ez sinetsi, mon bijoux, behin soilik maite dela,  
gainerako ereintzak itzulmina baizik ez direla.

Izan urarekiko joera; bide gardenak hartu aterpe.  
Ohartuko zara inoiz lore higatuen etsiaz.

Ez dakit zer jardin uzten dizudan, semea.  
Berde kamuts nahi luke zure udaberrian  
kristalezko negutegi honen maketa hautsiak.

### Patti Smith Rimbaudekin ametsetan

Patti Smith liluratu egin zen Rimbaudekin. Poema bat idatzi zion, amets bat, non aipatzen zituen Charleville eta Abisinia, soroak, ur-putzuak, zauri bat begian kristal batez egina, esku handiak, masail gorritzak, logela bat, begirada ustez axolagabeak. Arthur belauniko, negarrez, belaunetatik helduz Pattiri. Patti ohean etzanda, iletik helduz Arthurri. Sugarra dira ilea eta biloa, o Jesus! Orratzak atzamarrak, o Jesus! Zeurea naiz osorik.

Horraino poemaren laburpen badaezpadakoa. Eta horren harira, neure txanda.

Andre birloka naiz. Uztaila da, zapatu bazkalostea, neure baratzean, atea ertirekirik. Zozo-bikotea palmondoaren ezkatetan, moko laranjekin eltxo bila. Etzanda nago olanazko jarlekuan. Labandaren firfira. Ura ipini behar dut tea egiteko. Eskutik labain egin dit Pattiren poema-liburuak. Rimbauden antologia elebiduna Bilbon daukat. Hara, lagun hark oparitu zidan, otso-lanak egiten zituenak, nire urtebetetzean, eta horrexekin izorratu ninduen zeharo. Hain nengoen burbuila uherra bihurtua, punp egiteko irrikaz, hain nintzen jostura gaizki lotua, urratzeko desiraz. Halaxe agintzen zuen bizitzak orduan, esan dezagun, nahiz eta kontua ez den, inondik ere, batere ximplea, batere.

Marigorringoek kilimak egiten dizkidate bernetan, eta uraz pentsatzen dut, ahoa lehor. Hola, guapa, esan dit etorri denak. Ahots hori aiztoa da arrastirian, o Jesus! Gaixorik egon zara, printzesa, neuk prestatuko

dut tea, masajea emango oinetan, sandaliak kentzen lagunduko, zu lasai, sirena ilegorria. Azukre epela bihurtu zait txistua. Ezin begirik ireki, indarge ni begi berdantzetan dzanga egiteko. Hotzikara eragin dit koilaratxoak bular artean. Kikara beroan sartu ditu berak atzamarrak, intziri bat ito du. Ezpainetan ditut orain haren hatz luzeak. Zantar hori. Txupatu egiten dizkit belaunak bere liazko mihiarekin. Mahaspasa eta ronezko izozkiak dituzu belaunak, Meibi, maybe, agian, Meabe, akaso. Goazen barrura, ez egin dar-dar. Ahotsarekin irentsi nau, galdua ni marraxoaren eztarrian. Parasma-metxak hagetan, planeta burdinkarak erlojuetan, txori-hezurak altzarrietan. Ez naiz beltzarana, ez naiz liraina, ez naiz argia, ez naiz gaztea, ez naiz ahalduna, ez naiz zangarra, ez naiz, ez naiz, ez naiz aingerua, ez naiz deabrua, ez naiz ezer ez bada bizi izan naizena, oroitzen dudana, eta neure izena, izan nahi dudana. Har ezazu buelta, Goikokaleko neska txiki hori, neuk sendatuko zaitut neure esku handiekin. Marraxoaren bazka ipurmamiak. Egin dzast, dzast, dzast, eder hori, hortxe, eman, segi holantxe, plas, plas, plas. Martiri bat bezala ireki naiz erditik. Tarratada eta bitsa. Izerdiaren perladuria. Zeurea naiz osorik, aleluia. Neurea zara osorik, aleluia, o Jesus!

## Besteak

Zer egingo diogu, ba, ez naiz perfektua.

Parkak dira politago eta argiago.

Esther Gimenez

Ez dut nahi izan Aurore Dupin, idazten jardun inork niretzat pianoa jo bitartean. Ez dut nahi Mesalinaren antzik, ezpaten andrearen zipitzik. Ez Magaren taxurik, eta Horaciorekin topo egin zubietan, ez dudalako nahi haur beragatik egin negar, haur beragatik egin barre. Ez dut izan nahi Teresa Calcuttako, maitatuz gurutze bat non iltzatu esku betihuts hauek bankuko kartillekin batera. Ez dut nahi Kareninaren antzik, trenbidean herioari turrir egin ezinik larrutan babesturik. Ez dut nahi bihurtu bi izpiritu korapilatu, otalurretan galapan, Catherine eta Heathcliff, eta patuari lotu. Ez dut nahi Saforen kutsurik, peploen azpian muztioa miazten edo labar beltzetan heriotza limurtzen. Ez dut nahi izan neskatxo mazala clair matin usaina, aitatziren esaneko, zatoz, nire altzoan etzan, ipurdi guri horretan tas-tas egin diezazudan. Ez Anbotoko Mari, ez Nazareteko Maria, ez burezur bati eskainirik bizia, Magdalako Maria. Ez Emma Bovary, ez Borgiatar Lukrezia, ez Salome, ez Alizia, ez Albreteko Joana, ez Lilith, ez Diana, ez Medusa, ez neure ama, ez Sigrid Thulekoa, ez Miletoko Aspasia; ez Anne, ez Alfonsina, ez Sylvia eta ez Marina; ez Errusiako Katrina, ez Sienako Katalina; ez Ava, ezta ere Greta, ez Ingrid eta ez Gina. Ez Virginia Woolf, ez Flora Tristan, ez Simone de Beauvoir, ez Luxemburgtar Rosa... Denak distirantak, denak hain aiosak... Ispilu eskerga horretan, panpoxa naiz islatzen, domino-fitxen antzo etengabe kokatzen: ni neu, aurpegi arrunta, papar naroa, zumearen udamina giharretan, ni, gauerdiko kizararen lurruna, uharte isila eta sakan ozena, neu, uneoro poeta, noizean behin jueza, sarri apostolua eta inoiz euskalgeisha.

## Locus amoenus

Bakardadea bera ere bada ekintza. Zergatik ekin?

Vladimir Holan

Maskor-kixkirriak, urtero lez,  
oldean heldu dira hondartzara.  
Posible dirudi bizitza sintesian ikustea  
lubakia hazi bitartean.

Txakur bat olatuei zaunkaka.  
Saski batetik laranja bat pirritan.  
Posible dirudi oihalak goratzea  
publikoari itxaron barik.

Urriaren hogeita bosta, zapatua.  
Semea bere kabuz hirian.  
Posible dirudi gauzen ordena  
esku bakarrarekin atontzea.

Hustasun hau ez da besterik bakoa, ez da kasuala.

Ai, lagunok! Ardo-kopa altxatzen dut  
baratzeko hormei begira  
eta kardu-belarra bezain arina naiz sentitzen.  
Erreturak errautsak utzi ditu lurrian,  
haizeak bekokira dakarkidan polen arrea.

Bitsa, ez dut besterik eskuetan.

Sagarrondoaren adarrak krak egiten duenean  
aingeru hautsien barrearen soinuaz,  
sinesten dut posible dela oraindik ere  
zentimetroren bat haztea,  
panpinekin berbetan segitzea  
eta ahaztea.